# TEATRO POPULAR VASCO

## LOS CHARIBARIS

Estos dos charibaris que copiamos íntegramente y con grafía exacta a la de los manuscritos que se hallan en la Biblioteca Nacional de París —fonds celts et basques—, corresponden: «Recoquillart et Arieder» al número 138, pudiéndose datar como de la segunda mitad del siglo XVIII, y «Chiveroua et Marceline» al número 136, en copia de la primera mitad del siglo XIX. Estas farsas charibáricas «Dont il nous reste une vingtaine de manuscrites et qui son plutôt des caricatures de la Pastorale, car elles se jouent avec les mêmes gestes, la même technique que la Pastorale», como las define P. Lafitte (1), han sido recogidas por el gran especialista sober el tema G. Herelle, quien nos da la siguiente nota sobre ellas: «Les farces charivariques de ce genre sont en fort petit nombre et difficiles à trouver.. Elles offrent un interêt particulier en ce qu'on y recontre souvent des traits de moeurs propres au pays basque, des expressions de la langue populaire, des proverbes, etc.», y las transcribimos aquí de la manera más fiel posible, aunque estamos seguros de que nuestra lectura ha de tener bastantes lagunas y deficiencias. De todas maneras, las transcribimos aquí ya que, como dice L. Michelena (2), «los deseos expresados hace cien años por Francisque-Michel y reiterados luego por Hérelle no se han cumplido: ningún buen conocedor de la lengua y de las costumbres vascas ha publicado y comentado el texto original de las comedias de carnaval y de las farsas. Sería muy de desear que en adelante prejuicios y estrecheces intervinieran menos en el estudio de nuestra literatura popular». Esta tarea a hacer ha sido iniciada por G. Aresti (3), pero el estudio histórico, social, lingüístico y literario de todos los charibaris así como de su edición crítica podría formar un «Corpus Charivaritum» que tal vez si encuentro tiempo y medios suficientes pueda darlo a conocer en un plazo de tiempo relativamente corto.

PATRI URQUIZU.

---

(1) P. Lafitte: La Littérature basque. Ed. Mende berri. Bayona, 1973. Pág. 14.

(2) L. Michelena: Historia de la Literatura Vasca. Ed. Minotauro. Madrid, 1960. Pág. 30.

(3) Jakes Oihenarte: Kaniko eta Belxitina. Ed. Lur. San Sebastián, 1971.

[ASJU 7, 1973, 117-224]
http://www.ehu.es/ojs/index.php/asju

# CHIVEROUA ETA MARCELINE

Acturen ycena

Chiveroua
Tomalina
Ama
Marcelina
Semia
Lucur, avocatia
Germain, avocatia
Espagnola
Bedecia
Bouchera
Jugia
Grefiera
Arnegui
Tratalanta
Payot
Sataneria
Satan
Belzebut
Cornut generala
Mera

## CHIVEROU ETA MARCELINA

(Satan eta Belzebut yalqui)

SATAN (1)

Belzebut çer dioq
Eraq hire uduria
Enuchentu behar dudala
Badiat suspeiçionia.

BELZEBUT

Satan behady (2) hounat
Nahi derat Eran Eguia

(1) m jartzen du eskuzkiribuak, hau da, mintzo.

(2) Horrela irakurtzen dut nik.

Aspaldian Enuchentu yncala
Banian suspeiçionia.

SATAN

Ala vandart alkhegabia
Muthur mithiri debria
Araçou hori hiq
Euri Eran behar haitana.

Badiquic hik Belzebut
Ene mithil yçala
Eta hire Eguin bidia dela
Enni Errespectu Careyatçia.

BELZEBUT

Bai niq çouri Errespectu Ecar
Badit obligatione dropiriq
Orai artio ukhen dit çoureganiq
Segurqui recompensa propiriq.

Çerbutchatu çutut
Ene eguin ahal oroz fidelqui
Eta ez ukhen orano
Soldatariq çoure monsatiq.

SATAN

Soldata duca nahi
Hiq Ene monsati
Egurioq memenpat
Nahi derat Eman oraqui.

(Satan retira)

BELZEBUT (3)

Gente hounaq jouan da
Satan hebetiq.

(3) (1) bezala.

Ene soldataren cherca
Arauz aperenqui.

Haregatiq badut beldura
Ezten jouan Tresoriala
Bena bai garote baten cherca
Emaiteco bisaretiq behera (4).
(Satan yalqui boursa tiqui eta onaqui esquian.)

SATAN

Behadi Belzebut
Orai soldata behar duq
Eta boursa hountan
Urre eta çilhar baduq.

Horez countent ezpahiz
Ukhenen duq biscaretiq
Ehun eta hamar colpu
Makhila hounez fierqui.

BELZEBUT

Cette boursa propia duçu
Çihaur uduri duçu
Çoure beguira Eçaçu
Eta sar uzqutiq.

Eta maquila hori
Uzten ahal duçu
Eta bestella cartac
Ez behartiçugu dhartitu.

SATAN

Belzebut behady
Enuq orai khechu
Bena eztuq behar eni
Diharuriq galthatu.

Debriaq eztiq diharuriq
Gueçur baiciq besteriq

(4) Parece que "bisaretiq" es un lapsus en vez de "biscaretiq" como dice en el v. 42.

Andre çounbat nahi baduq
Franco badiat hetariq.

BELZEBUT

Andre ukheitecoz
Dunçela behardit
Bestela Ene fedia
Eztit bathere halaco behariq.

SATAN

Belzebut eztuq heben
Bathere duncelariq
Dunçela ucqheitecoz
Behardiaigu jouan hebetiq.

(Marceline eta Chiveroua yalqui eta atteya.)

SATAN

Soiq soik Belzebut
Marcelina noun den
Bere galant onrequi
Hau ha gainti giten.

(Retira Satan)

CHIVEROU

Ygaren gayhan ames bat
Eguin dut ohin hinçalariq
Nescatila eder bat
Oyhan batetan aracountraturiq.

Amesacq oro gueçur direla
Estuçu osoqui Eguia
Çeren nihaureq ycousten beitut
Orai heben aproba.

MARCELINA

Ossagari dut ere

Hori beita ossagari
Eritarçun sagrepat badit
Ezpeitut Eran yhouri.

Eritarçun hareq niçu
Amigni bat sentitçen
Bedeçiriq Eçin uckhenez
Beniz dhenatçen.

CHIVEROU

Çer da çoure Eritarçuna
Edo hainbeste sofritçen duçia
Niq sendo ahal baçinçat
Eremedy çinçaquet berhala.

Bena enuçu barber ez dadeçi
Eritarçun suberte baten baici
Suberte hartariq baduçu
Eguin guiniro Eremedy.

MARCELINA

Baduçu bai Eremedi
Conforme Ene Eritarçunari
Bena Enuçu Eraitera ausart
Çer dudan heben clarqui.

CHIVEROU

Hire Eritarçunaren eçaguçia
Etçitan uduri difiçil dela
Deçagun aren eguin
Mementian bedeçinagia.

Hoq eman berhala aren
Hancheco haritz haren oundouala
Hara oundouan eran yçadan
Acort yçanen guiradia.

MARCELINA

Hoq emaçu berhala

Çuq nahi duçun lecquiala
Çuq baduqueçunez animoriq
Houra yçanen baita.

(Datteya, Sataneria yalqui.)

SATAN

Hola-hola Chiveroua eta Marcelina
Ene cerbutchari maitiaq
Suita itçacie suita
(   ) guticien urha(ç)aq.

(Chiveroua eta Marcelina retira.)

SATAN

Egunco Exemplietan
Ene mitila countent yça
Chiverou eta Marcelinarequi
Beharduguia libertitu ounxa.

BELZEBUT

Ene buruçaguia beharticugu
Bethiere thurmentatu
Goure cerbutchari fidelaq
Houraq yçanen dutuçu.

Noula beitçira dançazen hariq
Ahoua Egaric idorturiq
Gouaçan colpu bederaren
Edatera hebetiq.

SATAN

Gente hounaq bagouatça
Yçan citaye ounxa
Oundouan soguin eçaguçu eta
Astouaq jo çitçayela.

(Retira. Yalqui Lucqur eta Germain, dassaya.)

GERMAIN

Noula ecarten çira
Mons da Lucus avocatia
Ounxatho çirela uduri çunuque
Çihauren dispositioniala ya.

LUCUR

Ounxato ecarten nuçu Jauna
Mons da Germain avocatia
Egun hoyetan erus nuçu
Hargatiq ene bihotçian ya.

Avocatu yçatia houn da
Balin bada hanitz dratica
Bena egun hoyetan
Eztugu çer pleteya.

GERMAIN

Yçanen da bay dratica
Eguiteco gaistouaq estouaca (oniç)
Dresens ederiq ginen da bai
Orano gouregana.

Ginen çaicu bai gouri
Oillasco çonbait eta achouri
Elle ederiq eran beharderegu
Halaco ecarliari.

LUCUR

Oillascoqui eta achouri
Eni ere houn citaçu yçigari
Bena nahiago niqueçu doba guey
Ahugni çounbat eta erbi.

Hayetariq ounxa ala eta
Goure Eguitecoua pleteya
Leguiaren conforme ez yçaniq eta
Eguin guiniro goure guisa.

GERMAIN

Leguiari baguira jaraiquitcen
Eztiçugu goure eguitécoua eguinen
Dugun bethi çerbait bil
Çer nahi ginen den.

Abis galthaçaler era
Diçegun eguin goure guisa
Noula ere ousta beitugu
Ençun nahi diela.

LUCUR

Bay eta eman ere
Bethiere esparancha
Bere eguiteco orotan
Burutan jouanen direla.

Behar dugu yçan segret eta abil
Estiçaguicu deusere descubri
Bestella ifernuco debrietarat
(jouanen dira goure pratikak)
Ydoquiren gutie goure carguietariq.

GERMAIN

Bai hori hala duçu
Abisacia comeni duçu
Bena hoq emaçu presentin
Behar diçugu barascatu.

(Retira biaq. Yalqui Marcelina eta Tomalina.)

MARCELINA

Beha çiti hounat ene ama
Orai biaq hebe beiquira
Nahi neiqueçu descoubritu
Cen den ene phensamentia.

Bena othoiçen çutut graciaz

Behar naiçu laguntu
Ene desein hounetan
Betiere obeditu.

Chiveroua behar guiniqueçu
Aihaitara cumitatu
Amourioua hartan eçari beitut
Ynganaçera ysseyatu.

TOMALINA

Niq pensaturen dignat remedy
Tranquilqui egon ady
Debria ezpadu houra
Inganaturen beitugu eigerqui.

Eguinen dignaigu bai frico
Ounxa houn beitatigateco
Aragui frescarequi nahasiriq
Asto houn eta olio.

Houra eremedio houna dun
Mouticouen gogatceco
Behin nihaurcq espra bidignat
Estun holacoriq orano.

MARCELINA

Benedica daquiçula Izpiritia
Ala pensamentu houna
Behariq ausartu nuçu
Ene ydeyaren descoubritçera.

TOMALINA

Deçagun aren berhala
Presta goure doba
Prestatu gabe amens
Gin estaquigun houna.

(5) Hanitz benadita daçut
Oray çoure quitaciaq

(5) Estos versos: 213-217 se hallan pegados al M. S.

Bethy handitcen ciztadaçut
Oray ene doloriaq.

(Retira biaq. Yalqui Sataneria.)

SATAN

Ene oustez Chiverouc
Behar diq ounxa aithattu
Tomalina eta Marcelina
Doba baten prestaçera gouantuc.

Chiverou hayeq eygerqui
Ynganatcen die
Emaste gaistouec esquierqui
Iffernuco debria die.

BELZEBUT

Çuq eta niq baçaquiçugu
Mundu orotaco berry
Bena holacoriq orano
Ez ahal diçugu ycousi.

(Yalqui Marcelina eta Tomalina datteya.)

SATAN

A ( ) Tomalina eta Marcelina
Chiverouq behar du aithatu ounxa
Asquenecoz ountxa pacaturen du
Debrien asto çinçaria.

BELZEBUT

Hoyen izpiritiaq
Eztiçu ez bere saria
Bethiere gaizqui eguiteco
Iffernuco milla debria.

(Satanaq retira.)

CHIVEROU

Gay houn soutaçen deiçiet
Tomalina eta Marcelina
Ama alhabaq algarequila
Noulachi ygaren duçie eguna.

TOMALINA

Ounxatho igaran diçugu eguna
Hounqui gin çirela Chiveroua
Marcelina ecaran caidera bat
Jar dadin hartan berhala.

Jar çite horche Chiveroua
Amigni bat plaçer baduçu
Guero Çuq daquiçun beriaq
Countaturen deisquçu.

(Tomalinaq eçar mahaina eta minça.)

TOMALINA

Caidera horequi Chiveroua
Huilant çite mahaigniala
Bouchi bat behar duçu jan
Orai gure compaignan berhala.

CHIVEROUA

Eniz orai mengoua
Giteco çien mahaigniala
Eztu orano oren bat
Etchen ayhaltu ninçala.

TOMALINA

Eztuçu deus eran nahi
Çu etchen aihaltiagaty
Eztuçu heben deus handiriq
Ez eguin complimenturiq.

CHIVEROUA

Batere mengoua eniçalariq
Giteniz çien obeditçia gatiq
Egon ahal cinataquien
Hartu gaba holaco phenariq.

(Jan ora eta jan.)

CHIVEROUA

Ala bouchi houna
Horlacoriq eztut cheste secula
Eztucieya eran nahi cer den
Ala amenx erriquia da.

MARCELINA

Egun goiçan ihizlari bat
Borta hountara gin duçu
Erbi bat baçiçun atçamaniq
Eta houra erosi dioçugu.

Eguin diçugu guero doba bat
Egun ahal beçain ounxa
Gogouan erabili diçugu guere
Chetta eraci behar guençicula.

Jaten ahal duçu tranquilqui
Ezteiçu eguinen gaitçiq
Eztuçu ucqhenen hain sari
Erbi jateco abantaillaric.

CHIVEROUA

Alabeitçen haun doba houna
Gogo hounez jan dut ja
Eremessiatçen çutiet hanix
Ene ama alhaba maitiaq.

TOMALINA

Ene hauraq berançen hasi beita

Oherat ni banoua
Çieq ellesta çiteye
Amigni bat algarequila.

(Retira Tomalina. Chiveroua mintza, biaq dasseya.)

CHIVEROUA

Noula ecarten çira
Ene maitia Marcelina
Çoure arancuran nuçu
Çu bistan etçutudanin ya.

MARCELINA

Eni ere luçe citacun
Çoure ycousi gabia
Eta bihotçian dudan dhemoren
Descubritu nahia.

CHIVEROUA

Minça çite bertan aren
Çer descun phena eguiten
Çoure bihotçian çu den
Eni ahal çira descoubritçen.

MARCELINA

Asquenic algar ycousi guinianian
Beitaquiçu çer eguin gunian
Guc segretian eguin eta
Yçan behar baita publiquian.

CHIVEROUA

Possible deya othian
Gradu hortan guiradian
Lan hartan ari guinandianian
Enigna hori pensamentian.

Eztuna segretu hori

Descubritu eni baiçiq
Araur amac jaquinic ere
Estiquegnaigu ansiariq.

MARCELINA

Amaren çeren ansiariq
Behar dugu aren ucqhen
Hareq baçaquiçu casi
Gu çer ari guinen.

Amaren araprochicq
Eztitaçie ez anxiariq
Nihauren guitaco maluraq
Emaiten ditaçu bai handi houri.

Eta çuq aldiz ez emaiten
Bathere sattifationeriq
Lehen aldiz eraiten çeneitan
Franco elle ederiq.

CHIVEROUA

Hiri elle eraitez
Lehen ere enun nik phenatu
Çeren nihaurq beteitan
Bethi arracountru chercatu.

Beste althe ençun dignat
Beste elleriq ere
Ebilten ynçala hi
Beste hanichequi ere.

MARCELINA

Ençun baduçu hala
Eztuçu hori eguia
Eztit ucqhen atentioneriq
Çourequi baiciq secula.

Ama jalqui çite berhala
Orai badit çoure behara

Leheneco elle ederaq
Ycousten tit tromperia.

(Tomalina jalqui, Chiveroua retira.)

TOMALINA

Eran yçadan ene haura
Cer dun hainbeste oyhutan
Cer equiten deigna phena
Descubri acquit berhala.

MARCELINA

Cer dudan ene phena
Nahi deiçut eran berhala
Çointan yçigarri beita
Nic dudan afflitiona.

Chiveroutan ukhen niçun
Ene amorioua plaçatu
Bena loxa dit debru hareq
Nayan ederqui tronpatu.

Aracountru ukhen niçun behin
Harequi belar moundal batetan
Eta loxa dit orduco arracontrutiq
Orai occupaturiq niçan.

Ene ama maitia
Hounec phena emaiten ditaçu
Çihaurq eçagut eçaçu bena
Sabel chisria han çitaçu.

TOMALINA

Ene haura horegatiq
Ehadila ez affligy
Lehen ere aguitu çitagna
Behin casi nihauri.

Ni trompaturiq baratu nundugna

Precoçionen jaquin gabez
Hic segurtaturiq dun guero amex
Asto hunaren poterez.

MARCELINA

Erremedio horec poteria
Ousta banu baluquiela
Beste çounbaitequi harta hountan (liberticeco)
Hau nioçu phena.

TOMALINA

Orai aldiz ene haura
Guitian hebetiq retira
Tranquilqui eguiten ahalez
Hura niri yçanen dela.

(Retira bioq. Sataneria jalqui.)

SATAN

Eran eçadaq ene mitila
Eya uduri çaya
Chiverouq ala Marcelinaq
Erouanen diela victoria.

BELZEBUT

Orano ene buruçaguia
Hori ecin yaquiten diçugu
Bena nounti nahi hatic
Goure cerbutchari gueyac dutuçu.

(Retira. Jalqui Tomalina, Marcelina passeya.)

CHIVEROUA

Çien cerbutchari niz
Eune ama alhaba maitiaq
Luçe uduricen çeitadan

Çien ycousi gabia.

(Passeya oro)
Marcelina eradaçu
Noulache cira livratu
(Orai uduri citiadazu)
Leheneco eitatu çirela
Uduri çitaçu libratu
(Khambio duzula hartu.)

MARCELINA

Eztuçu behar dudatu
Leheneco eitatu niçala canbiatu
(Ia zaitala khambiatu)
Icigarri irousqui
Yçan nuçu bai libratu.

TOMALINA

Behaçitie ene hauraq
Orai beitia phuntia
Goure eguitecouez guitian
Aphur bat elesta.

Algaren houn betciradie
Bethi etchequi behar ducie
Oraidaniq juntaçeco hatiq
Orano gasteto çiradie.

CHIVEROUA

Espaignan esne saltceco
Pratica handi bada
**Heltu bada unhude çounbaitek**
**Beharra hau aquituren da.**

MARCELINA

Ene ama Chiverouaren
Eta çoure deseigna halabada
Çien obediçiagati
Aren nourat nahi banoua.

CHIVEROU

Espagnalat nahi bahiz abiatu
Nihauq nahi ait laguntu
Ni Franciarat utçuli gabe
Hi ere bai plaçatu.

Bena gaiça bat behar dignaigu
Orano harçara pensatu
Anaya areba guirela
Orori hau declaratu.

MARCELINA

Chiverou nahi banaiçu laguntu
Behar diçugu aren phartitu
Eta leheniq aldiz orai
Equipagia prestatu.

(Retira. Sataneria jalqui.)

SATAN

Aço hotz egun bero
Plaça hountan çounbat erho
Hounagin çiren çaharaq
Eciradie gu beno çuhurago.

(Retira. Jalqui Marcelina eta Chiverou astouarequi.)

MARCELINA

Ala phena handia
Herritiq partiçia
Bena adisquide bat beitut ni haurean
Houra dut ene consolia.

(Jalqui españoula, espagnoulica.)

CHIVEROU

(Ave Maria puisima)

ESPAGNOULA

(Sen pecabo conçebida)
Hongui gin çiradeyela
Ene francez maitiaq
Çiauste barnialat
Abur bat descanpaçera.

(Triatiala jagain oro jar.)

Franciariq cer berri
Deitadaçie ecarten neri
Edo cer emplegutara gin çirin
Çacuscuya descubri.

CHIVEROUA

Francesaren esnia
Espaignan ounsa salçen dela
Ençun uqhen dicu eta
Plaçatu nahiz houna gin gutuçu.

ESPAGNOULA

(Bien venido, mi amigo)
Hongi etori cirastela
Nirequin placeto
Behar dugu orai apanatu
La Conte Composteguin galthatu.

CHIVERO

Noula Francez houneq
Esne houna beitu
Salario houn baten emaitera
Çuq ene beharçu phensatu.

ESPAGNOULA

Hilabeteco onça urhia
Liçate enne boronthatia
Eya çu content çirenez

Emaidaçu repostia.

CHIVEROU

Hilabeteco ounça uria
Badignaigu orai ellia
Eya countent yçanez
Emadan hiq repostia.

MARCELINA

Ene annaya maitia
Çu countent baçira
Estit arabocaturen
Çuq abonitçen duçun elia.

ESPAGNOULA

Francesa Marcelina
Eran eçadan orai eguia
Lagun hori çer urrasiteco dugna
Badinat araincura.

MARCELINA

Ene buruçagui jauna
Eraiten deiçut eguia
Annaya bat dudala
Ounsa officier houna.

ESPAGNOULA

Hire annaye yçateco
Soudoura din çorosto
Beguia gaisto eta
Beldur nun bera hire gogoco.

MARCELINA

Sinhexi behar duçu Jauna
Ene annaye bat dela
Eta cherca yçoçu pratica

Muron eguile houn bat beita.

ESPAGNOULA

Cantoro houna bada
Uqhenen din pratica lana
Franco Espagnan
Bere marquequin giten bada.

(Espagnoula attera.)

CHIVEROU

Adio Marcelina adio
Franciarat orai nun utçulçen
Bena hanco berriequi
Ahal beçain sarri nun utçuliren.

Bena saga yçatiaz
Hiri niçain gomendaçen
Ni oraico boronthate hounian
Hire eretçian bethi nun yçanen.

MARCELINA

Sage yçanen nuçu Chiveroua
Orai artio beçala
Besteriak agiçen Espaçait
Tranquil jouaiten ahal çira.

(Retira berdara alde Chiverou erdiala,
Marcelina jalqui daney, jalqui Arnegui.)

ARNEGUI

Noula ecarten çira
Nescatcha gastia
Idouritçen çitaçu çou
Françesa çiradila.

MARCELINA

Bai Francesa niz

Ez hambat lacetu
Amigni bat allagueratçen nuçu
Çu heben beitçutut recountratu.

ARNEGUI

Eni ere plazer eguin ditaçu
Çoure heben arracountraçia
Francesa guiren beçala
Behartiçugu eguin eçagutçiaq.

Francesaq francesaren ycousti
Bethi plaçer eguiten dou
Hartacor behar diçougou
Çouq eta niq algar consolatou.

MARCELINA

Cer aldetaco çira çu
Eradaçu plaçer baduçu
Edo eta heben gainti
Çer officio praticatcen duçu.

ARNEGUI

Basanabare aldeco
Harguin bat nouçou
Officio houra hemen gainti
Niq praticaçen beitut.

Çou ere nescacha nounco çire
Edo hemen gainti cer ari cire
Denbora eradaçu
Eya noula douçoun yçena.

MARCELINA

Chiverou aldeco nuçu
Eta yçena aldiz Marcelina
Unhude heben plaçaturiq
Espagnoul elli batequila.

ARNEGUI

Ebien Marcelina
Aren unude bacira
Aren praticaturiq çira
Lehen ere officioua.

Ycasi ahatz estaquiçun
Beharçunuque praticatu
Eta abantailla ucqheiten douçounin
Bethi hongui perechatu.

MARCELINA

Perecha niro gogo hounez
Abantaillaren ucqueitia
Hebeco Espagnoulec ya
Estie deusere balia.

ARNEGUI

Hoq emaçu Marcelina
Nounbait choco batetara
Ycousten diçut orobat
Behar une handian çirela.

(Retira. Jalqui Sataneria.)

SATAN

Ho ho Marcelina
Bethi nounbait agiçen yçana
Beharunin edireiten yz
Françian eta Espaignan.

Behady hounat Belzebut
Marcelinaz yçigari countent nuq
Çeren goure leguia
Ederqui etchequitçen baytu.

BELZEBUT

Canbia eztadin amex

Behar diçugu bethi tentatu
Oranocoi ya hori
Goure cerbutchari fidela duçu.

(Retira. Chiverou zamariz. Jalqui Marcelina eta espagnoula.)

CHIVEROU

Gincouaq gay houn deicula
Marcelina Espaignoularequila
Noulache ygaran duçu
Aspaldi hountaco denbora.

MARCELINA

Honqui gin cirela Chiveroua
Enne anaya maitia
Chivauri aphur bat barnialat
Yngoiti eygneriq beitçira.

(Chiverou ygain.)

ESPAGNOULA

Guiçoun hori hemen gainti
Çer ari da bethy
Annaya dugnala oxes
Galant chahar çounbait beitun hori.

Caraco ouste balin banu
Hola liçatequiela hori
Bira osticata eman eta
Idequi çinçaqueyet hementy.

MARCELINA

Sinex eçaçu jauna
Eguiaz anaya dudala
Eta etchenco berien jaquiteco
Guitian hebeti retira.

(Retira. Jalqui Marcelina, Chiveroua, Passeya.)

CHIVEROU

Ycousi duna Marcelina
Hire buruçaguiaren airia
Hiri eta eni noula
Mesfidatu çaicun espaignoula.

MARCELINA

Eztiçu horec deus eguiten
Houra mesfidaturiq ere
Ene aita eta ama noulache diren
Çoureganiq jaquin nahi nuque.

CHIVEROU

Ounsatuçu çoure aita eta ama
Herenegun goiçan ya
Beri eta orobat
Arastaco familia.

Eta çu çertan çira
Edo noula gobernatçen çira
Ene eretcian fidelitatia
Beti etchequiten ducia.

MARCELINA

Minçatu çira fidelitatiaz
Harez eztuçu behar dudariq
Secula eçin jalquiten
Ahal çitçaitçat bihotcety.

Balin banu ere abantailla
Nahi eztudan beçala
Bestec elioçie ez ucqhen
Nitan parteriq secula.

ARNEGUI jalqui

Hori, cer debrou guiçon da
Eran eçan Marcelina

Edo cer ourrasetan den
Minçaquit berhala.

Amenx galant çounbait douna
Ousta banou haladela
Bouria erdia niceyon
Debrouen çameola.

MARCELINA

Annaye bat dit haur
Noure ycoustera giniq
Esteçaçula othoy eran
Aiçinago elleriq.

CHIVEROU

Eran eçan Marcelina
Haur cer garamatica da
Guiçoun horequi arauz
Badun cerbait gorabehera.

Cheitana aurqui eran
Fidelitatia etchequiten eytana
Orai eçaguçen dignat bai
Debrien ourde hardia.

ARNEGUI

Cer eguiteco douq hounequi
Debrien çaragaistoua
Khen ady hebeti bestella
Ucqhenen duq bi osticata.

CHIVEROU

Quemen gouti detout
Alaturiq goyhena
Balin bahiz ere hi
Iffernuco milla debria.

(Maquilla calduz has)

MARCELINA

Gincouaren amorecatiq
Othoi ucqhura çitaye
Arnegui aren paçencia
Har eçaçu çuq ere.

ARNEGUI

Khen acquit hebenty
Ene çaignala hounqui
Behar diougnat biscara hauxa
Apho char houni.

(Chiverou escapa, oro retira, sataneria jalqui.)

SATAN

Ayei hel Belzebut
Trijadiat garotaturiq
Bai eta alte erchia
Bere platinan ocquerturiq.

Behar deitaq Eremedio
Hiq çerbait phensatu
Bestela behar diat
Hil edo çapartatu.

BELZEBUT

Satan cer duçu othian
Çoure tripa belzian
Hain gaisqui çireya
Çoure barne coronpitian.

Behar duçu eremediceco
Çoure sedebousa lachatu
Guero jaquinen diçugu behar duçunaz
Libratu ala çapartatu.

SATAN

Bai othoi Belzebut

Abiloua lasterca
Eta çerbait eremedy
Eçar yçadaq berhala.

(Ecar cristel bat, retira.)

SATAN

Ayei othoi Belzebut
Eztuc causituren chiloua
Iferniara era baledi
Lauca horen moscoua.

BELZEBUT

Çaude uçqhuru Satan
Eman deçadan ounxa
Bestela caraturen çaiçu
Çoure uscuco fonsa.

Çoure etche prioriq
Behar diçu laxatu
Babamentu hounez baiciq
Behar çunin çapartatu.

(Retira, Jalqui paquetarequi, Marcelina passeya.)

ARNEGUI

Possible deya Marcelina
Franciarat abiatu çirela
Ala berant phena eguiten
Çoure ganiq phartiçiaq.

MARCELINA

Eni berguisa aren
Penadicatu Arnegui
Bena placer baduçu
Behar duçu gin enequi.

ARNEGUI

Souitaco Marcelina

Gou algaren houn baguina
Gin nintçou bai çourequin
Eta lagount etchera.

Cer da çoure gradoua
Edo deus eguin guiniroua
Eran yçadaçout çouq ere
Deseigniq baçou nonquia.

MARCELINA

Prima houn bat nuçu
Arnegui sinhesi behar duçu
Eta çourequi escountceco
Desegna baniqueçu.

Othoicen çutut graciaz
Behar naiçu laguntu
Fortuna hounbat ennequi
Çuc eguinen beituçu.

ARNEGUI

Çoure eranetan confidaturiq
Giten nuçu çourequin
Bena othoiçen çoutut
Ez eguin trounperiariq (passeya).

Esquireya gou heltouren
Secoula çoure etchera
Ala erounerazten nauçu
Amenx mundiaren besteriala.

MARCELINA

Etçitiela, ez deseya
Arancu diçugu bai bidia
Hountariq landa diçougu
Lehen lehen heria.

(Passeya, jalqui Tomalina, Payot.)

Gincouaq gay houn deiçiela
Enne aita eta ama maitiaq
Placer eguiten dareit
Çien ossagarritan ycoustiaq.

TOMALINA

Adio enne haur carioua
Othian aren heltu yça
Honci gin yçala
Hire compagnarequila.

PAYOT

Lagunth hori cer dugna
Eran eçan Marcelina
Horeq uduriago licqhen
Mareisto bat liçatequiela.

TOMALINA

Ene hauraq eygneiq beitciradie
Pausatcera hoq emaçue
Guero çien beriaq
Countaturen deiscutçie.

(Retira oro, jalqui Marcelina, Arnegui passeya.)

ARNEGUI

Trompatu nain Marcelina
Noun da hire primagia
Espahençat laurdenca
Gouti Louqhen artia.

Debrouen bisaya
Ale aphoçanco elguera
Onçi ere ahal noun douquegna
Espaignatiq eracari gabe houna.

MARCELINA

Enuçu orano prima bena

Segur yçanen nuçu
Solamente goure aita eta amari
Behar diçugu causitu. (Passaya.)

TOMALINA jalqui

Alo Arnegui eta Marcelina
Orai beita phuntia
Behar duçie heben harat phensatu
Eregistratu behar duçiela.

Eta egun berian
Guitian aren abia
Guerouaq tornu houniq
Espeitu ecarten secula.

PAYOT

Hoq emaçie berhala
Berançen hassiti beita
Isquiributouen ygaraiteco
Ucqhen deçagun dembora.

ARNEGUI

Heltu gabe har beriala
Nahi dout eran ene eguia
Hounequin eregistraçeco
Estout hanbat houn gogoua.

PAYOT

Orai duca suntutoua
Araçou hoyen eraitecoua
Borchaç edo amourioaz
Ginez niz bai aiçina.

ARNEGUI

Çieq bortchaturen nauçiela
Bai debrouen gueçoura

Çieq beçain houn dout bai
Soustengatceco araçoua.

PAYOT

Cer duc hire aracoua
Eran eçaq arneguitoua
Marcelina nahi ucquia utci
Orai bi hautorequila.

ARNEGUI

Bi haur balinbatou
Eraçou nourcganic doutou
Ene ganiq baloutou ere
Aragretiq eniqueçou.

Marcelinaq Espaigntiq
Gueçourez niçou eracari
Çouintan eraiten beceitan
Prima houn bat cela eni.

PAYOT

Espaduçu nahi eregistratu
Haur bat behar duçu hartu
Bestella gustiçiala
Mementian behar diçugu.

ARNEGUI

Houlaco counbersariq
Haboro eraiten badaitacou
Hebenche berian
Biscara hausten deiçout.

PAYOT

Ene biscararen hausteco
So eguiten duq aphaltito
Sacolan sartuco hait
Eta han lepoua tincatuco.

ARNEGUI

Çouc ni sacolan sartouco
Estouçou holaco ugui bouchiriq ucqhen orano
Debrien animal çiguinçia.
Orai diçougou ycousico

(Arnegui jo, Payot eta ourturiq besteq bara.)

Hor debruen animala
Orai asqui badouçia
Enauçou çouq ez ni
Aisa bildouco sacolala.

(Arnegui retira)

MARCELINA

Ah eta haur cer da
Othian possible deya
Acione haur guc orai
Ycousi behar guniena.

TOMALINA

Payot othian aren
Ecin jaiquiten çira
Marcelina behar dignaigu
Erouan bieq arteca.

PAYOT

Ounsa colpu gaistotoua
Eman ditaçu Tomalina
Arnegui debruto hareq
Estia besaire gripoua.

ARNEGUI

(Arteca har eta retira, jalqui Arnegui passeya, Germain sar.)

Gincouaq egun houn deicula

Mons de Germain avocatia
Giten nouçou çouregana
Inportançia handirequila.

Present chipi haur oriçou
Çouri gomendatcen niçaiçou
Eguiteco bat çouq
Behar deitaçout pleteyatou.

GERMAIN

Cer duçu eguitecoua
Esplica yçadaçu ene guiçouna
Ene lepoua berme
Çu burutan jouaiten ezpaçia.

ARNEGUI

Marcelinec badiçou
Bi haur nountipaitiq
Eeta enic direla (oec)
Nahi diestadaçie hareraçi.

Marcelinaq Espaignatiq
Gueçurez nindiçoun ecari
Prima houn bat cela eraitez
Escounturen guinela algarequi.

Desiratu niçou guero
Behar dougoula gustiçiala
Bena ene aldia etcheqaçou çouq
Pacoittouco deiçat behar dena.

GERMAIN

Tranquil egon çite ene guiçouna
Eguiteco hori utçaçu nitara
Eta çorçi erian gin çite
Ordian eraiquiren duçu Jugamentia.

(Retira Germain erdialat, bestia basterialat,
jalqui Tomalina passeya, jalqui Lucur jauna.)

TOMALINA

Gincouaq egun houn deiçula
Mons de Lucur avocatia
Giten nuçu çouri
Gracia bataz othoiçera.

Arneguic ucqhen guituçu
Gu eguiasqui trounpatu
Eta egun çortçi aldiz
Justiciala behar diçugu.

Bi haur ene alhavarequi
Hareq baçitiçu
Eta orai aldiz guisala
Ucatu nahi dioçu.

Eguiteco hortan jauna
Çuq behar gutuçu laguntu
Çoure phena oroz onsa
Yçanen çira recompensatu.

LUCUR

Esteiçut hitz emaiten presisqui
Burutan jouanen cirela
Bena eguinen deiçiet
Bethiere niq eguiten ahal dudana.

Eta çortçi erian guero
Gin çitie cortiala
Bataren favori segur
Jugamentia içanen da.

(Retira bedera alde. Jalqui Grefiera, Germain, Lucur, Jugia oro sar.)

JUGIA

Grefiera isquiriba eçaq
Orai Jaun hoyen eranaq
Eta frauderiariq yçan estatin

Gogounian eçaq ounxa.

GREFIERA

Tranquilisa çite Jaun jugia
Eguinen dit eguin ahala
Ene lepoua berene isquiribian
Frauderiariq yçaten bada.

GERMAIN

Jaunac esta questione
Behar dugu minçatu
Eta goure eguitecouez
Ere bai esplicatu.

Causa consequenta egun
Badugu esplicatçeco
Attentione plaçer daduçie
Hartu eni behatçeco.

Arnegui oxes guiçoun bat
Gin yçan ceitan etchera
Çountan eran ucqhen beteit
Marcelinaq trompatu diela.

LUCUR

Hori beste counbersa
Marcelinaq trounpatu diela
Deusere phensatu gabe
Esteçaçuela ydequi discousa.

Marcelinaq bi haur batu
Biaq Arneguiganic umentu
Eta orai aldiz hareq
Nahi beteico uccatu.

Hortan gaignen Jaunac
Emaçie çien uduria
Estuçu aperenciariq Marcelinaq
Arnegui trounpatu diala.

GERMAIN

Jaunac pharcamenturequi
Esta orano hortan asqui
Marcelinaq ucqhen çian Arnegui
Espaignatiq gueçurez eracari.

Alegaçen çiyon Marcelinaq
Eçi prima houn bat çela
Harequi gin ledin Françiarat
Algarrequi escounturen çiela.

Eta beste alte ere orano
Eya noun din aproba
Bi, haurto houraq
Arneguiganiq dutiela.

LUCUR

Ezticie ez publiqui
Arauz eguiten Lan houra
Nounti nahi duçu hareq
Ucqhen ahal deçan aproba.

Eta beste althe ere orano
Marcelinaq nahi çiçun espousatu
Bena Arneguiq trounpatu oundouan
Etçeyon nahi behatu.

GERMAIN

Ebien mesieu Lucur
Çela vie est vrai
Çer nahi duçu Arneguiq eguin deçan
Marcelinaq nahi ucqheniq ere.

Cer eguin çiniroçu çuq
Gueçurez nourbaiteq erabili baçuntu
Eraiten deiçut hortan gaignen
Araçouriq bathere eztuçu.

LUCUR

Ezteucuz et cuinuz
In manduca meo
Çuq beçain houn dit bai
Araçoua sustengatceco.

Eta çuq Jaun jugia
Emaçu çoure Jugamentia
Leguiaren conforme
Justo yçanen den beçala.

JUGIA sar

Jugatçen dut eta ordenatcen
Presentian orai heben
Eguiteco hori yçanendela
Marcelinaren countre.

Marcelinaq Arnegui
Gueçurez ceren cian eracari
Hartacoz araçou hori
Baliaturen çayo Arneguiri.

Beste althe esten aproba
Hauraq Arneguiganiq dutiela
Hartacoz hor aquituren da
Pai de bentura mai de segura.

(Jalqui Tomalina erditiq sar, jalqui Arnegui basterretiq sar.)

JUGIA

Grefiera yzquiribatcen duca
Niq eman jugamentia
Eta eman eçaq Arneguiri
Eraiqui deçan berhala.

GREFIERA

Izquiribatu dit bai Jauna
Orai çuq ditatiaq

Arnegui orai huillant çite
Ori çu Jugamentia.

(Retira oro. Jalqui Marcelina, passeyuz.)

MARCELINA

Behar dut orai arnegatu
Mouticouer haboro fidatçia
Eta ez gabe escusa
Haur beita phena debría.

Arnegui fripou hareq
Eigerqui nai trounpatu
Eta secula beçain beharin
Nihaur aldiz baratu.

Haur da phena maradicatia
Eztaquit orai çer phensa
Deus eraileriq arauz
Eztut ucqhenen secula.

Nescatila çounbaiteq beitu costume
Ounsa nahiriq complimentu eguiteco
Niq espadut galthaçaleriq
Nihaureq dut esquontceco.

Hobe dut ahalque labura
Eçiez damu lucia
Grado hortan ya
Ymposible çait paçençiaçia

Hauche gainti guiçoun bat
Hounat giten ari beita
Gogouaq eraitan deit houra
Ene bedeçia ahal dela. (Passaya.)

(Jalqui Bouchera, çamariz.)

BOUCHERA

Gincouaq egun houn deiçula,
nescatila gastia

Nescato jari nahi licatienba
Yhour ere baçanaquiquia
(Çumaritiq ervis ygain tiratiala).

MARCELINA

Cer gradotaco ene guiçouna
Nahi duçu çuq nescatoua
Eya houn yçanen denez
Niq chercaturen deiçudana.

BOUCHERA

Lan suerte orotaco
Houn yçanen den guisaco
Emasteriq gabe beiniz
Niq behar niqueçu halaco.

MARCELINA

Çuq emasteriq estuçula
Bai orano berri ya
Separatu çireya algarganiq
Ala amens hil çaiçia.

BOUCHERA

Etcitatu ez orano hil
Bena idequi dit etcheriq
Egundano esta sortu
Halaco milla debruriq.

Eniroçun haboro paçençia
Halaco persounarequila
Ene huxartian bethi Jaunequi
Eta ni ounsa mesperetcha.

MARCELINA

Holaco emastia
Othian aren badeya
Mereciago liquiçu hareq

Adar ordarien eguitia.

Eta nahi deiçut orai eran
Cer den ene pensamentia
Ni nihaur nunduqueçu
Nescato yarri nahi ninçana.

BOUCHERA

Gogouan erabilten niçou
Ah çu yçan baçina
Bena ene goustocoriq
Etçitadaçun arquituren secula.

Aurqui eran beteitadaçu emastiari
Adar ordariaq eguin behar neiçola
Hayen eguiten ere aren
Çuq lagunturen naicia.

MARCELINA

Lachuqui hortan gaignen
Escutuçu bilaiscaturen
Merechimentia badiela
Nihaureq beitut ycousten.

BOUCHERA

Eta soldatataco
Çounbat phensatcen duçu
Harez ere behar diçugu
Orai arauz minçatu.

MARCELINA

Hilabeteco bost libera
Çouri espaçaçiçu sobera
Hortan gaignen emadaçu
Çuq çoure repostia.

BOUCHERA

Hortan accord yçanen guira

Baduqueçu hilabetian 5 libera
Guero behardeitadaçut eguin
Emastiq eguiten ceitan cerbutchia.

MARCELINA

Accordian reserbatçia
Eztuçu propiqui eguitia
Bena acort yçanen gutuçu
Guitian hebetiq retira.

(Retira biaq escun.)

SATAN jalqui

A Marcelina Marcelina
Hire sujak bethi yragnen dia
Areta suitan ucqheiteco
Asqui houn dun bai urhaxa.

Belzebut nouz yz
Enne mitil perestia
Ounsa asse eta
Lan guti eguilia.

Jalqui adi bertan hounat
Bandit buru handia
Espanto eguile eta
Obren apart uzlia.

BELZEBUT jalqui

Cer dio Satan
Guiçoun balent yçigaria
Ounsa asse eta
Lo çabaliq eguilia.

Bethi plainta betheriq yz
Hi enetaco
Eta ez deus emaiten
Aldis soldatataco.

SATAN

Belzebut araçou diat
Ingoiti cerbait eraiteco
Estiat mitil behariq
Niq auher ejoiteco.

Leheneco mitiletariq
Badiat canbio
Hi ya hobe hiz
Bona chera eguiteco.

Soldata nahi baduq
Hiq enneganiq
Cargu bat nahi derat eman
Estena guey leheniq.

Ecarten ait Belzebut
Horen caricatiq idequi çala
Eta orouariq eguin ezteçen
Ahouen tapaçale.

BELZEBUT

Cargu propia emaiten deitaçu
Ene nausi eguin bidesia
Debrieq bola citçala
Çoure cargu ororequila. (Retira.)

(Bouchera jalqui passeya, jalqui Chiverou ordi.)

CHIVEROU

Gai houn Bouchera
Egariarequi helçen nuçu houna
Pintou bat ardou
Idequi plaçer deitaçia.

BOUCHERA

Bai guisala çer egaria
Erorten yçan eta

Apho guichacharra beti
Ordi giten ytçait etchera.

Campoua hartu behar duq
Bestella bi pelat ucqhen duq
Sobera cherca eraci gabe
Sinhexeriq hobe duq.

CHIVEROU

Bi pelaten emaitia
Ousta duca hain aisa dela
Gueçurra eranen duq muthuretiq
Debrien apho çancoua.

Que men fouti detout
Enaiq idequiren etche hountariq
Marcelina behar beitut ycousi
Jalqui gabe hebetiq.

BOUCHERA

Eztuq ycousiren Marcelinariq
Eya ehaidanez idequiren etcheriq
Toca bi pelat hoyeq
Eta jouan ady hoyequi.

(Eman bi pelat bilaiscalat, Marcelina jalqui separaçera.)

MARCELINA

Horiq cer guiçoun dutuçie
Edo çien artian cer ucqhen ducie
Chiverou othoi çouaça etcherat
Ohialat aldiz çu ere.

(Retira Chiverou erdialat, bestiaq besterialat,
Marcelina jalqui eta passaya.)

TRATALANTA jalqui

Noulache yz Marcelina

Uduri dun ounsa yçala
Banigna orai hiri
Descoubritçeco gaiça bat.

Bena eneçagnala arafusa
Dolu estaquidan erana
Behar bytçait orai gin
Nusteneco cambara hartara.

Egun ene tratian
Eguin dignat yrabaçi
Eta trenputu houn beitut
Nahi nunduquen libertitu hirequi.

MARCELINA

Hoq emaçu aren berhala
Ahal beçain segrequi
Bestela galdia nuçu
Jaquiten badeit buruçaguic eni.

(Retira biaq besapez, Jalqui Marcelina, bouchera passeya.)

MARCELINA

Ah ene buruçaguia
Ala beitut phena handia
Bena çuq othoi consolaneçaçu
Othoiçen çutut graçiaz.

BOUCHERA

Cer da çoure phena
Eradaçu Marcelina
Eguinen deiçut bai niq
Eguiten ahal dudaniq bada.

MARCELINA

Goure lan segretaq
Descubritu behar diçie
Enuçu haboro egoiten ahal

Çouri declaratu gabe.

Sabela çitadaçu bai honçen
Phensatcen beitut cer den
Bena dembora ygaran denin
Çaitadala mehaturen.

BOUCHERA

Hortan guira Marcelina
Eniçun phensatcen areta
Nourganiq duçun guero
Ounsa badaquiçia.

MARCELINA

Ah holaco aracoua
Oithian eraiten deitacia
Enuçu ez ni autatu
Çourequi baiciq secula.

BOUCHERA

Ençun dignat counversa
Estaquignat gueçurra ala eguia
Tratalan bat eta Chiverou
Bethi hiri etcheca çirela.

Beste althe enun nahi ni
Besteren haur hasten ari
Yustiçiala behar dignaigu
Eya çer eranen deiquien gouri.

(Retira biaq, Jalqui passeya Bouchera, jalqui Germain sar.)

BOUCHERA

A Germain Germain
Çouri nuçu hersatçen
Eta eguiteco ymportant batez
Ere bai gomendatcen.

Causa hortan Jauna
Çuq behar naiçu laguntu
Çoure phena orotçaz
Yçanen çira satisfatu.

GERMAIN

Cer da ( ) hire eguitecoua
Eran eçadaq ene guiçouna
Eta clarqui minçady
Pleteya nadin aisa.

BOUCHERA

Ene nescatouaq badiçu
Haur bat nountipatiq
Eta nahi ditaçu Jauna
Houra eni erechequi.

GERMAIN

Haur duc questionia
Ene guiçoun maitia
Nescatila houra hiq
Secula hounqui duca.

BOUCHERA

Bai jauna niq
Çounbait aldiz hounqui dit
Bena baduçu beste çombait
Nic beno haborotan hounqui dioniq.

GERMAIN

Ezpahu hounqui bathere
Eguitecoua clarago çuquia
Bena eguin ahala eguinen diat
Hire favori bethiere.

(Retira bedera alde, jalqui Marcelina passeya, Lucur sar.)

MARCELINA

Çoure nescato jauna
Mons de Lucus avocatia
Oricu presens haur eta
Othoi aphura pharca.

LUCUR

Hounqui gin yçala Marcelina
Presença deitana ecarten
Hitz emaiten deignat niq
Estugnala hiq galduren.

MARCELINA

Causa çencialbat badiat
Çouri ezplicatceco
Eta çoure beharra
Ere bai hartaco.

Noula nescato beiniz
Haur bat badit buruçaguiaganiq
Eta orai trompa oundouan
Ez causiriq eguin nahi.

Ucaçen ditaçu Jauna
Estudala hareganiq
Ororequi botinaguin yçateco
Enuçu ez hain nahasiriq.

LUCUR

Haur houra Boucherari
Niq diougnat erechequiren
Present hounen ecartia
Eçain ez doluturen.

Escu chilinchan giten
Ardura ycousi nahi niquen
Niq behar dena eguinen dignat ordin
Tranquilqui ahaliz jouaiten.

(Retira bedera alde, jalqui Grefiera, Lucur, Jugia, oro sar.)

JUGIA

Grefiera behaquit ounsa
Bai eta orai isquiriba
Hortan gaignen eman ahal deçadan
Niq ere Jugamentia.

GREFIERA

Jugamentu eta pleteyu
Bai eta ere isquiribiq
Conforme ginen dutuçu
Esteçaçula bathere ansiariq.

LUCUR

Jaunac beha çiteye
Orai ni minço beniçaiçie
Behar dugu orai pleteyatu
Causaren conforme.

Marcelina umendu
Bere buruçaguiq trounpatu
Algarrequi haur bat eguin eta
Nahi beitero ucatu.

GERMAIN

Badaquiçie guero ounsa
Boucheraganiq dia haura
Oh Marcelina ebilten çuçun
Beste hanitz chequila.

Nourq daqui Marcelina
Couinen colputiq çen baratu
Oharen jaquitia
Lan gaistoua diçugu.

JUGIA

Germain eran eçaq

Deusere badaquica
Boucheraq nescatila houra
Behin ere hounqui dia.

GERMAIN

Eran ditaçu Jaun Jugia
Behin hounqui çiela
Eta ordian eguin çiela
Bere fonçionia.

Bena behincouagatiq
Eztiçu hareq crimariq
Çounbatetan esta heltu
Marcelina besterequi.

LUCUR

A Germain Germain
Areta esteiçu escolaq gainti eguiten
Bena çihauren mihitiq cira
Orai ataquiric yçanen.

Boucherarequi behin heltu dela
Orai badugu borogaincha
Besterequila ere antatu dela
Ecarçu orai aproba.

GERMAIN

Tratalan bathequi baçin
Canbera bat afermaturiq
Eta houra ez cerbutchatçen
Marcelinarequi baiçiq.

Houraq han çer ari ciren
Ala oraçione eraiten
Esteroçu ez Boucherari
Çuq haura erechequiren.

LUCUR

Yhourq ycousitia

Oficiouan ari çiela
Espaduçu haren aproba
Haura Boucheraren da.

GERMAIN

Espalin baduçu çuq
Araçou hoberiq fornitcen
Esteroçu Boucherari
Çuq hauriq eretchequiren.

LUCUR

Ichiliq Mons de Germain
Espalin bacira egoiten
Çoure pleteyu orotan
Niq çutut interdituren.

JUGIA

Jaunaq asqui ençun dut
Orai jugatu behar dut
Boucher houra içanen da
Haur harez cargatu.

Espacin nahi hartu
Etçiçun behar aitortu
Bere mihitiq yçanen da
Guiçoun houra coundenatu.

Espalu behin baiçin hounqui
Eraiten dian beçala
Eliqueçu balia ordoucouagatiq
Haur bathez cargatçia.

Bena hala eraniq ere
Balima esta eguia
Bena niq ya leguiaren conforme
Behar dut eman Jugamentia.

(Jalqui Bouchera erditiq sar, Marcelina basteretiq sar.)

JUGIA

Bouchera hounat behady
Haur hasten behar duk ycasi
Eta heben harat Marcelina
Esteçala haboro hounqui.

BOUCHERA

Haurra haçi behar duta
Behin hounquiagatic Marcelina
Iffernuco debrieq bola beça
Holaco biçitçia.

MARCELINA

Behin baiçiq enaiçula hounqui
Ene aitcinean ez eran haulacoriq
Biga hirouretan eranxi gabe
Secula ygaren duquia gauiq.

(Bouchera retira haurrarequi.)

GREFIERA

Marcelina oriçu orai
Harçaçu Jugamentia
Nouraco nahi livro çira
Cotaq yharauz eta.

Hola livratcen baçira
Ez dolu Marcelina
Aiçinara ere ariscatcen diçu bai
Orano pecaturen çaiçula.

Abis bat nahi deiçut eman
Çoure ounsa houn beitate
Mouticouequi harçara helçen cinenin
Haren ychiliq ecarçu bi jaquile.

Orai eigerqui libratu cira
Bere mihitiq atceman beita

Bena abiseiçu dugunaq
Etçiçan trounpa.

MARCELINA

Nahi nuçu orai çuhurtu
Eta guiçounez ez fidatu
Eta orai aldiz plazerez
Jaunaq çieq eremestiatu.

(Eguin gur bat, oro retira, jalqui Sataneria, Marcelina passeya, jalqui bedeçia sar, gur bat.)

Çoure nescato Jaun bedeçia
Noulache ecarten çira
Ençun dit gobernanta baten
Beharin çiradiela.

Baniçun niq ere ydeya
Nonbait plaçaçecoua
Borontha hortan gin nuçu
Orain çure gana Jauna.

BEDECIA

Hounqui gin çiradiela
Nounco ere beitçira
Eya comeniçen ahal guirenez
Guitian aren elletta.

Eta beste gaiça bat ere
Eran behar deitaçu
Punçelagia emanen deitadaçia
Çihaurequi balinbaduçu.

MARCELINA

Ene punçela yçatez
Estuçula bathere dudariq
Areta ygorteco abantailla
Hanichetan ucqhen dit.

BEDECIA

Othian possible deya
Çu puncela çirela
Eta etcira determinaturiq
Aren ygori behar duçula.

MARCELINA

Eniçun determinaçen jauna
Loxas trounpaturiq bara
Orai casi delibera hioçu
Occasionia aguicen bada.

BEDECIA

Hox emaçu barna
Soldataz ellestaturen guira
Gogouaq eraiten ditaçu
Çu eta ni acort guiratiela.

(Retira escun, Jalqui Germain eta Lucus.)

LUCUS

Mons de Germain badit
Çouri eraiteco bat
Goure asqhen audiançan
Harturiq maleçia bat.

GERMAIN

Cer duçu malecia
Minça çite aren berhala
Uqhenen çu umilitate
Çoure loxadeniq bada.

LUCUS

Çeren beharçunian pleteyatu
Guisa hortan enne countre
Boucheraren sustengaçiagatiq

Araçouriq bathere gabe.

GERMAIN

Marcelinaren avocatu çinelacoz
Baduçu handi mentia
Eta ez eçaguçen leguia
Haboroçiez astouaq latia.

LUCUS

Çuq badaquiçu leguia
Abiseiçu gaintiriq eguin escolaq
Eya hamar eta hirur çounbat dire
Ydequi eçaçu countia.

GERMAIN

Equi jaun handito çira
Bena eneçaçula sobera couhouna
Bestella baraturen çira
Cascaturuq sinqueta.

LUCUS

Guiçoun ounesta cira çu
Avocatu yçateco
Cargu hortaco beno hobe çinateque
Bortiala ourdain jouaiteco.

GERMAIN

Estit niq çuq beçala
Gueçurez houra trompatu
Bena hori yçanen duçu causa
Nahi çutut denonçatu

LUCUS

Cer araçou duçu çuq
Enne denonçaçeco
Estuçu ya leterariq ygoriren

Ysquiribatcen espeitaquiçu orano.

GERMAIN

Halere çuq beno haboroniq
Causa ydequiren dit
Etçutut nahi haboro ycousi
Khen çaquiçat bistati.

(Retira bedera alde, jalqui Marcelina, Bedecia passeya.)

MARCELINA

Ah ene buruçaguia
Ezteya haur phena handia
Bista galçen eçaguçen dut
Egunetiq eguniala.

Çeluco gincouaq
Orai puniçen niçu
Haren boronthate saintia
Bethi dela complitu.

BEDECIA

Possible deya Marcelina
Galçen çaiçula bista
Beno orano ginen çaiçu bai
Etçitiela ez loxa.

A Marcelina bethi ere
Gincouari gomenda çite
Harçaz çounbait aldiz
Ohartu behar çunuque.

MARCELINA

Ene buruçaguia orai ere
Casi estit ycousten deusere
Bista gal urrentu gabe
Etcherat abiatu beharnuque.

Bedeçi çiren beçala
Eremediriq baçaniquiquia
Orai arisca niroçu
Çourequi dudan soldata.

BEDECIA

Niq eremedi emanen deiçut
Hareq houn eguinen beteiçu
Suduretiq tavaq har eçaçu
Bista eracariren beteiçu.

Eta jouan nahi baçira
Guitian hebeti retira
Niq monturabat prestaturen deiçut
Gogo hounez jouan çitin eta.

(Retira biaq. Jalqui Sataneria.)

SATAN

Marcelianri çer heltu çayon
Ençun duca hiq ere
Asquenecoz guisala
Asqui sobatu die.

Mundu hountan ygaran diq
Çounbait gorabehera
Eta ygaranen ere bai
Orano bicicen bada.

BELZEBUT

Estadin amens canbia
Orai loxatucheriq beita
Satan deçagun aren
Guq bethiere tenta.

(Retira. Jalqui Marcelina monturas, jalqui Tomalina, Payot.)

MARCELINA

Ene aita eta ama maitiaq

Houna nitçaiçie tristeriq
Beguietaco bista
Casi oro galduriq.

TOMALINA

A ene haur maïtia
Othian possible deya
Hiq galduriq dugnala
Beguietaco bista.

PAYOT

Eraix adi montura hortariq
Eta hox eman barna
Barberto baten cherca
Ni banouan berhala.

*(Eraix çamaritiq aita ameq har artian eta retira. Marcelina jalqui passeya, jalqui Chiverou.)*

CHIVEROU

Noulache yz Marcelina
Ençun dignat bista galdu dugnala
Ounsa phena hartu beitut
Segurqui ene bihotçian.

MARCELINA

A Chiveroua Chiveroua
Estiçugu leheneco denbora
Asqueneco plaçeraq oro
Giten tuçu finiçera.

Orai halere begui bateti
Çerbait ycousten dit
Bena yçan nuçu bai
Bista oro galduriq.

CHIVEROU

Ginen çain bai bista

Ehadila ez loxa
Orano ni yçanen nun
Hire consolaçalia.

Orai diela docena bat ourthe
Beitaquin çer eguiten gunian
Behardignaigu aren practicatu
Orduco negocia Marcelin.

MARCELIN

Soberançia luqueçu
Orai arauz Chiveroua
Eta jaquiten badeiq galdiq
Guero, çoure emastiarequila.

CHIVEROU

Egon ady tranquilqui
Ezteignala horreq phenariq
Eztignaigu ene emastiaren
Itsu baten beno haboro acholiq.

MARCELINA

Hox arren berhala
Çoure boronthatia halabada
Eniteçu ni ausart
Çoure arafusatcera.

(Sataneria jalqui.)

SATAN

Viva Viva Marcelina
Hire coragiq eztin aphur balia
Mundu hountan ezta sorthu
Arauz hire paria.

Belzebut ycousi duca
Marcelinaren apetitia
Bista galduric eta

Eçin utçi officioua.

BELZEBUT

Hori nescatila mengouanta
Gin çuçun mundu hountara
Gogoun dit ez autadenez
Hori asseren secula.

SATAN

Bai bai asseren duk
O haxaq deronian mancatu
Arte hountan arastan
Ynposible yçanen duq.

(Retira. Jalqui Chiveroua, passeya, jalqui Marcelina.)

CHIVEROU

Houna niçain harçara
Ycoustera Marcelina
Ynposible çitadan hiregana
Gin gabe egoitia.

MARCELINA

Ençun dit counbersa
Estait gueçurra ala eguia
Gouri gelosturiq emastiq
Çerbait eran deiçula.

CHIVEROU

Bay ychiltu ere bai
Debria espadu beitan
Minçatu den beçain sarri
Eçarri dignat canpouan.

MARCELINA

Niq ere errecountrou eguin

Hanche erreca batetan
Eta mesprechatu dit
Deusen ere houn esten guisa.

Eta eran derodan beçala
Eguinen niroçun obra
Solamente minçatu baliz
Hausten nioçun buria.

CHIVEROU

Eztin cer eni ere
Aipa diçadan deusere
Bestella etcheriq idequiren diq
Hitçiq ençuten badut solamente.

MARCELINA

Lachuqui elquit ahalçu
Ni ginen nitçaiçu
Bestela çoure eyhargari
Hori yçanen duçu.

Bestella ere orano
Nountipaiti bengaturen nicoçu
Aiçur batez nahi niquioçu
Buria erdiatu.

CHIVEROU

Aguian orai hilen dun
Eri dela uduri beitu
Behardignaigu jaquin leheniq
Gincouaq nahi dunez erequeitatu.

MARCELINA

Bai amez peri baledy
Bista hortariq lachuqui
Yçan eztadin mundu hounti
Çoure eta enne eyhargari.

CHIVEROU

Hox emaçu Marcelina
Nounbait choco batetara
Enne emastiaren despit
Liberti guitian ounsa.

(Jalqui Lucus eta Germain.)

GERMAIN

Et bien Monsieur Lucus
Comment sorte vous
eté vous faché
comme l'autre your.

LUCUS

Etes vous faché
quemen fouti si noutabé
c'est jourquoi j'eniparr
Çoure acholiq bathere.

GERMAIN

Je m'en fou amoi aussi
Espeitut çoure acholiq bathere
Autrement si vous voulez ami
Yçaten ahal gutuçu hala ere.

LUCUS

Eberbon caron factom est
Baçaquit niq latia ere
Et autrement ausi
Beste lengouage hanix ere.

GERMAIN

Autrement fera tout ce
Çuq lengouage ucqheniq ere
Amoi jene part besoin.

Dudan beno haboro batere.

Une foi je mavai porté
Espeitut acholiq eraniq ere
Une homme quelque chose
Eta çouri secula ez deus yhourq ti.

LUCUS

Parmafoi amoi ausi
Marcelina Tabé
Çoure presençaren espeiçen
Houra ahalque bathere.

GERMAIN

Oh Lucur avocatia
Guitian hebeti retira
Pariseco Cortiala jouaiteco
Çu eta ni capanteguia.

LUCUS

Hanco avocatiaq
Gu beno sabantago othe dia
Ez sugur nuçu eztaquiela
Guc beçain bat lengouagiga.

GERMAIN

Hanco avocatiac oro
Interditu beharticugu
Eçi goure yzpiritiaq
Paregabe dutuçu.

LUCUR

Beste gaiça bat ere baduçu
Noula escola handia beitugu
Behar diçugu traditionez
Debria oro phensatu.

(Retira. Jalqui Chiveroua passeya, jalqui Marcelina.)

CHIVEROU

A Marcelina Marcelina
Placerez giten nun hiregana
Azquenecoz orai badignaigu
Libertate edera.

Orai artio insultaçale
Ucqhen beitugu bethiere
Gin behardun ene etcherat
Beharra beitut hire.

MARCELINA

Asquenecoz finitu beita
Goure in tour oun piçalia
Bihoua bihoua bistatiq
Gincouaq lagun daquiola.

CHIVEROU

Orai artio segretin
Beiquinen gu bethiere
Orai estignaigu acholiq publiquin
Borchan yhouren ere.

MARCELINA

Hox emaçu Chiveroua
Mementian çoure etchera
Niq cerbutchaturen çutut
Çuq nahi duçun beçala.

(Passeya, jalqui semia.)

CHIVEROU

Elle apho çancoua
Eztuq eguin ene mania
Orai jauz eraciren derat

Biscareco erausa.

(Haura çafla, çafla.)

CHIVEROU

Aren sinhex eçaq
Beste aldian ere aita
Bestela yradoquiren darat
Ore Corpitcetiq haxa.

MARCELINA

Haurec ounsa creintatu behardiçie
Bestela gaignia harçen diçie
Nic beste hainbeste emenen dirot
Çu eigneriq baçirade.

(Marcelina çafla, haurra eror eta bellaunica.)

HAURRA

Gincouaren amoricatiq
Uçi neçaçue biciriq
Ah ene ama gachoua
Yçour baçinça çoure haur tristiq.

(Chiverou eta Marcelina retira.)

Buria dut hanturiq
Corpiça trucaz betheriq
Amaganat behardut
Niq ere sari.

Çu çelian çira
Balima gincouarequila
Çoure haur tristia hobe
Aita crudelarequi.

Aita crudela eta
Amaignou gueya crudelago
Gincouaq ebaqui çin arauz

Goure cortia halaco

(Retira. Jalqui Chiveroua bere amarequi passeya.)

CHIVEROU

Noula enne ama beitçia
Çoureganic behar dit abonimentia
Behar deitaçu permetitu
Marcelinarequi escounçia.

AMA

Ez enne fedia
Goitituriq besoua
Esterat niq hori
Abinituren secula.

Hire emaste çena
Hareq eyhar eraçi çia
Ourde ahardi haren harçia
Estiat abonituren secula.

CHIVEROU

Borchaz edo amourioz
Abonituren deiquçu
Çuq ez nahi ucqheniq ere
Leguiaz bortchaturen çutugu.

(Retira bedera gainti, jalqui Marcelina, Tomalina, Chiverou, Payot passeya.)

Ene amac niçu
Egun nahi ucqhen abonitu
Marcelinarequi escouncia
Espeteit consentitu.

PAYOT

Niq testamentu hountan
Yracouri diat leguetoua

Amac nahi ez ucqheniq ere
Borchacen ahal dugula.

TOMALINA

Ceren eztu nahi abonitu
Ah debrien eyhara
Areta haren despit
Eguinen diçugu ya.

(Ama jalqui.)

CHIVEROU

Ama abonicen deitadaçia
Eraiten deiçut harçara
Bestela ere sinhex eçaçu
Borchaturen çutudala.

AMA

Enne gogouaren countre
Hox arren berhala
Hitz emaiten deiçut niq
Orano asseren çirela.

(Passeya oro. Jalqui. Mera sar.)

CHIVEROU

Egun houn jaun mera
Çuq placer baduçu
Marcelina eta Ni
Nahi guntuçun erregistratu.

MERA

Sedepe edounkassion
açetqueban ha biste
c'est pourqoi aujourd'huy
non baga vasgouaire.

(Oro jar. Mera m. Jalqui jaquiliq. Chiverou harcen ducia Marcelin presentian dena çoure emaste.)

MERA

Adora quelu heit
Avoste escritura
Pagame dabort eta
apres feras outre entadehora.

(Paca Mera eta retira Mera eta jaquiliac, bestiac passeya. Chiverouaren ama eroreta.)

AMA

Ayei ayei flacus
Enaite gin aincina
Beharnaiçie othoi laguntu
Ygaiten astou gaigna.

CHIVEROU

Nahi baçira jaiqui çite
Eta ahal baçira gin çite
Orai estiçugu guq
Çoure beharriq bathere.

Eztiçu ez merechi
Horeq goure lagungouariq
Ceren escuntin obeditcen
Eguin gabe complimenturiq.

(Retira oro.)

(Jalqui Chiverou eta Marcelina, jar Chiverou.)

CHIVEROU

Aspaldico desseigna
Orai dignaigu complitu
Behar dignaigu aren orai
Gogo hounez aihaltu.
Presta eçan mahaigna
Eta aiharia adela

Esteiliar saldo batequi beno
Tranquilago yçanen guira.

Deus houn dienaq hayeq
Oro jan liçaquegne
Bena behar dignaigu intertan
Guihaureq ounxa ayhaltu.

(Marcelinaq mahaigna heda, eta eçar arto eta sagar ere.)

MARCELINA

Pasteix hox eta sagar ere
Esteyaq arountho dirade
Bena espeicutu yhourqui icousten
Estugu acholiq bathere.

(Jaten ari. Jin çamariz Satanaq eta general Cornut.)

CORNUT generala

Eran eçaq Chiveroua
Ni nourniçan eçaguçen oraica
Egun houna giten niçaiq
Hiri bisita eguitera.

Behar duq orai ouhouria
Cargu baten ucqheitecoua
Çouintan ounsa agradable
Houra yçanen beita.

Ni nuc General Cornut
Eta yçena Pla Foutout
Bena nahi derat orai
Hiri coroua çeditu.

Emastia arauz puncela
Ençun diat hartu diala
Nahi dic orai tribala eraci
Francian eta Espaignan.

(Ygain triaten gaigna.)

Alo aren berhala
Huillant acquit Chiveroua
Behar duq orai recebitu
Ouhouresco coroua.

CHIVEROU

Eran eçadaq hic cer ycendia
Edo cer coroua emaiten deitada
Hire mina gaisto debriarequi
Eniçaiq sobera fida.

CORNUT generala

Coroua hounen sustançia
Eranen derat berhala
Entelega eçaq Francia orotan
Cournatiq handiena yçala.

Eta hori cerc du causa
Espahaquin eran nahi derat
Hire emastia delacoz
Puta ororen guehiena

Estuc ucqhenen escapariq
Orai coroua hountariq
Nahi bahiçan houni evitatu
Ehin behar hartu emaste horc

SATAN

Allo allo Chiveroua
Gogo hounez harçen ahal duk
Beitiable egoual
Cargu ederra behar duq

(Eçar coroua burian.)

CHIVEROU

Hau hain peçuriq
Cer milla debru da
Uduri çait mundia
Oro gaignen dudala.

BELZEBUT

O cer ouste duc dela
Adar cargaren handia
Soffri eçaq soffri
Paçencia handirequila.

SATAN

Jaunaq etçayoua ederqui
Coroua hori egoiten
Cargu hortaco etçuqueya
Propiagoriq ediren.

BELZEBUT

Guitian orai retira
Goure generalarequila
A Chiveroua Chiveroua
Ehica orai guiçoun edera.

(Retira oro.)

---

# RECOQUILLART ETA ARIEDER

*Acturen icenaq*

Hilera
Recoquillart
Arieder
Sargent
Notaria
Sortibran
Burgoigna
Grefiera
Larmirant
Mera Sicambrius
Gilla Chilperiq

Marcelin
Lupus
Aurelien
Olliberos
Rollan
Satan
Jupiter
Aztarot
Richart
Turcac...

RECOQUILLART ETA ARIEDER

(Jalqui Hilera bera, mintzo passeyuz.)

HILERA

Gente hounaq houna niz
Plazer baducie behatu
Egun nahi nitçaicie
Recoquillartez minçatu.

Diela çounbait egun hountan
Desseigna bagunian
Recoquillarten festaq
Behar guntiela erran.

Gente hounac houna nuçu
Oray cier erraiteco
Ménagu hountan dien guiçounac
Triste guirela oro.

Har eçaçie exemplu
Egun Recoquillartetan
Eta houra beno hobequi
Goberna cien demboran. (Retira.)

RECOQUILLART jalqui eta mintzo.

Badiçut phena bat bihotçian
Aspaldico demboran
Emazte cena hilez gueroz
Estit errepausuric etchian.

Eta oray enetaco
Ez hambat propi
Leyho ondouetan ebiltia
Gay oroz bethi.

Atço içan nunduçun
Ariederen etchen barascaytan
Hareq badaquiçu ederqui
Guiçounen caresatcen.

Eta minçatu içan gintuçun
Escountciaz questioune
Eta accort içan guntuçun
Biaq hitz batetan barnen.

ARIEDER jalqui, biaq passeya.

Recoquillart ene buruçaguisoa
Niz occupaturiq duçu
Ene ecin asqui ounxa
Çoureganiq beguiratuz.

Bena niq cessa eraciren dit
Çoure ganiq beguiratcetiq
Milla debrieq ezpadu
Lotcen banitçayo bil honetariq.

Behin ikhoussi nayalacoz
Itça doyan gorderiq
Bena eniagoçu ez orano
Segurqui doluturiq.

RECOQUILLART

Arieder behar duçu
Oray eni behatu
Eta *Larran* belstar debru hoyeq
Behar tuçu quitatu.

Haboro jaquiten badut
Egon cirela itça doyan gorderiq
Utciren çutut *fera foutre*

Jouan citian *Lambar*esen oundotiq.

ARIEDER

Recoquillart çaude ichilliq
Hola desesperatu gabe
Niq ene çankharteco chili oua
Beguiraturen dit oro çoure.

RECOQUILLART

Ale emazte *arraca*
Finezia gaiztoz bethia
Cien desiraren complitceco
Trompa ciniroye debria.

Déjà erran nahi duçu
Cihaurtan duçun chiloua
Beguiratcen duçula éné
Oro osso ossoua.

Badiçu 14 ourthe
Hassiriq duçula
Segur nuçu *ingoitiq*
*Erdia higaturiq* duçula.

ARIEDER

Areta Recoquillart
Ounxa *trounpatcen* cira
Segur nuçu ordian beno
Berhis handiago dudala.

RECOQUILLART

Allo arren oray
Behar diçugu retiratu
Eta ene *luma*
Çoure *izquiribiguan* sarthu.

ARIEDER

Badiçu hoguey ourthe

Amorosturiq niçala
Eta etcitadaçut ihour ere
Mintçatu çu beçala.

Allo arren Recoquillart
Har neçaçu bessapetiq
Eta jouan *guitian* khamberalat
Libertitcera hebentiq.

(Retira. Jalqui Arieder eta Recoquillart.)

RECOQUILLART

Oray giten gutiçen
Goure tresnaq mesuraturiq
Eluqueçu mundian
Hobequi eguin lioueniq.

ARIEDER

Recoquilart çaude ichiliq
Trounpatcen cira ederqui
Nusten aguitu nuçu bestebatequi
Jouaiten beitciren hanitchez hobequi.

Eta noula beitut niq
Mundu ororen beharra
Ogui baten saria ahal badut
Behatcen nuçu aisa.

RECOQUILLART

Ençuten badut haboro
Ihour ere giten çoure ondouan
Segur nuçu ançaraquiric estiela
Hayeq janen çourequilan.

ARIEDER

Recoquilart nahi bacira
Enequila escountu
Bicio gaizto horiq

Behartuçu quitatu. (Jalqui.)

Recoquillart nahi nuqueçu
Gaiça bat declaratu
Bena solamente
Enaiçu behar gaisqui hartu.

RECOQUILLART

Cer elhe othe dun
Orai eni erraiteco
Haborouenety ere
Eni cerbait biltceco.

ARIEDER

Cihaurc ikhous eçaçu
Orai çoure estatia
Haborouenety ere eztella luce
Yçanen çoure bicitcia.

Hainbeste dembora hountan
Cerbutchatcen çutut
Eta seculla beçain
Bethy ingrat çutut.

Çoure semia eta ni
Biaq malerous gutuçu
Arranjamenturiq eguin gabe
Beguiaq cerratcen batuçu.

Hartacoz arren oray
Othoitcen çutugu
Goure danger tristia
Ikhous eçaçu.

Ordegnu bat othoy
Eni eguin eçadaçu
Eta çoure semia ere
Orhit ukhen eçaçu.

RECOQUILLART

A Arieder arieder
Malezia gaiztoz bethia
Hire gaitciq handiena dun
Ene hatiaren bildu nahia.

Bena ichiliq egoiten ahaliz
Berdin din balia
Niq eztignat emanen
Ihouri ene photeria.

Eni hatia bil eta
Nahi uke eguin erria
Niq hartariq beguiraturen ait
Juratcen deignat fedia.

ARIEDER

Aspaldico adisquideac guirella
Mundu oroq badaquiçu
Hamasei ourthe phuru
Ingoity badiçu.

Cerbutchatu ukhen baun
Den personnariq praubena
Enian cikedaçun hareq
Çuq beçanbat estena.

Hainbesteq entçuten dielacoz
Phena diçut
Bena moucanas baten obligacionia
Orano etcitut.

Eta oray ya
Hartaraturiq nuçu
Ahal niçan lekhialat
Jouan nahi nuçu.

Semiari phuru
Cerbait ordegna eçoçu
Nahi baduçu guero cihaurc
Leher eguin eçaçu

(Abia jouaitera, Arieder, bestia jarraiqui oundouan.)

RECOQUILLART

Cer debru phensatcen dun
Utçul adi hounat
Eta bihar notaria
Erakharriren dignat.

Leheneco fama houra
Ehien houla tincatu
Bi haur eguin eta
Halerez ezpehundien hartu.

Bena ni orai banonan
Amini bat yartera
Eta hi ere abiloua
Egur hache baten chercara.

(Biaq retira, Satanaq jalqui.)

SATAN

Jupiter behady hounat
Behardiagu ounxa hitçartu
Recoquillart eta Arieder
Goure ostatialat nahitiat bildu.

JUPITER

Voila qui fet Satan
Hori ounxa duçu phenxatu
Eta eguiteco hortan
Niq ere nahi çutut laguntu.

Lehenic aguertcen denian
Behar diçugu lothu
Eta hiruren artian
Herresta bolatu.

Hamasei ourthe hountan
Amoure batequi bici duçu

Eta eliçalat aldiz
Huillanteen ere eztuçu.

(Recoquillart eta Arieder jalqui eta passeya.)

SATAN

Beha cite Jaun anderiaq
Behar dugu orai mintçatu
Goure ostatiallat nahi çutiegu
Herresta bollatu.

(Tira arropetariq Sataneq erdian bara.)

ARIEDER

Khurutche saintiaren berthutez
Niq ait accaçatcen
Eta ene khorpitça libra deça
Odre emaiten.

(Arieder utci bestia etchequi.)

AZTAROZ

Hiq phuru behar duq
Oray gin gourequi
Ceren ezpeitut creditiq batere
Khuruchiarequi.

JUPITER

Niq nihaur entçun diat
Erraiten hire ahoty
Hi hiltcen içanian
Burdun arrestelu bat sartcez uzcuty.

RICHART jalqui

Aparta citaya horty
Figura gaistoz bethiaq
Bestella ene Sabriaq deitcie

Jauzeraciren buriaq.

(Retira Satanaq, jauziz bestiaq passeya.)

RICHART

Erran eçadaq hounat Recoquillart
Hire amouriarequi
Etciria orano nahy jarry
Beste bicitce manera baty.

Behar duq hasi mementian
Concentciaren examinatcen
Hountarçun gaisky akisitiez
Restitutione eguiten.

Ber demboran amoure hory
Behar duq kitatu
Eta armaren blesuraq
Ahalaz remediatu.

Exenplu orrible hory
Nahi diagu akaçatu
Amorecaty yçan ezkitian
Hil ondouan Damnatu.

Eta guiçounaq adin hortan
Ezpadu nahi eçagutu
Hil ondouan yçanen duq
Iffernian enflamatu.

Corrompicione horiq oro
Behartuq abondenatu
Eta legue veritablian
Ore fedia foundatu.

Hiri mihitheia
Berdemboran corregitu
Bestella mundia oro
Hiq behar duq phoçonatu.

Mundia trompatu nahiz

Hainbeste finacia baduq
Bena azken egunian
Oro ihauren gaignen ukhenentuq.

Arren duq errana
Salamounen proberbiouan
Ihaur hatçamaniq içan iz
Besteri hedatu laçouan.

Malçur orrible horren
Sujeccionety jalkitia gatiq
Behar uke conxultatu
Eliçaco artçanarequi.

Harcq emanen deiq conxolu
Hire arimaren sendotceco
Bai eta ere indar
Bidage handian abiatceco.

Eta oray presentian
Behar diagu retiratu
Jaun hoieq placer badie
Erretreta sonatu.

(Richart retira, soné. Bestiq ere retira. Sargent eta notaria jalqui eta passeya.)

NOTARIA

Egun houn jaunaq
Cer berri cien etchetariq
Baducienez berri agoriq
Erran eçadaçie bertariq.

Badenez procesiq
Edo eguiteco gaistoriq
Ezcountce eguiteriq edo
Çoumbait ordeignu eguin liroueniq.

Ni egun heben niz
Hurrunt daniq giniq
Entçuniq herri hountan
Etçuniella notaririq.

SARGENT

Ber guisan ni ere
Jaunaq nahi niz mintçatu
Eta ene estatia cer den
Cier declaratu

Arren ene gradia da sargant
Cien ororen cerbutchuco
Eta eztienary ezterot
Niq deusere hartuco.

Eta hori certaco
Goure officioua beita halaco
Lekhiariq eztienari
Ezterogu deus idokico.

Deusere lan okherriq ducienian
Gouregana gin citay
Etcheratcouan sacolaq
Arhin ekharriren tucie.

Eta oray presentian
Baliz ihourere
Cien errecebitceco
Hountarçuna bagunuque.

(Recoquillart eta Arieder jalki arracontrz.)

ARIEDER

Egun houn Jaunaq
Placer baducie
Kouriousegui ezpaniz
Cieq nounco cirade.

NOTARIA

Hitz liaburrez erraitera
Parisienaq gutuçu
Arauz goure libreiati ere
Eçagun ahal gutuçu.

ARIEDER

Eta cer eguitecoz
Heben ebilten ciradeia
Fachous ezpaçaiçie
Erran eçadacie.

NOTARIA

Behar duçu jakin
Sargent eta notary guirella
Eta gente buru gaistouen khostuz
Goure eguitecouaq eguiten tugulla.

(Notaria eta sargenta jar, bestiaq passeya.)

ARIEDER

Recoquillart beha cite
Orai duçu thenoria
Nahi baduçu eguin ordeignuriq
Baduçu occasionia.

Çu cihaur hirietarat eraistu
Etcira estatutan
Eta proffeita guitian arren
Occasione houn hountan.

Çoure etchenco familiaq
Badicie hountarçuna franco
Dutuçunaq oro behar tiçugu
Ama sementaco.

RECOQUILLART

Egunon eguru
Ahalkegabe handia
Nihauren phuru behardignat
Beguiratu erdia.

ARIEDER

Cer phensatcen duçun

Erran eçadaçu hounat
Eztucia ikousten behar duçula jouan
Berhalla beste mundiallat.

Cihauren beguiratcen tuçunaq
Çu hil oundouan cien etchecouentaco
Bi cehe sudur guero
Goure muthurrentaco.

RECOQUILLART

Eztignat ez ahalke handiriq
Hire sudurrarentaco
Eztun ni beçallaco caponric
Haboro pelatuco.

Bena jaun horieq arauz
Guitigne instruituco
Noula eguin behar dugun
Beraieq guidatuco.

SATAN jalqui

Eguin itçoq eguin
Ariederry ordeigniaq
Estitiq nahi beno lehen guero
Entçunen hire hil ceigniaq.

(Aztaroz jalqui.)

JUPITER

Hori duq hori Recoquillart
Colpu hardita eguiten duq
Hountarçouna ore haurrer idoq eta
Amourer emaiten duq.

AZTAROT

Hire ouhouria ere
Horti goratcen duq
Eta hil oundoco ostatia
Goure etchen seguratcen duq.

JUPITER

O Arieder Arieder
Badun passione gaintitu franco
Azkenecoz Recoquillarty
Eraguiten deron figaisto.

Asse dadin ordeignuz
Behar deroq ordeignatu
Egunian behin behar derialla
Sudurra uzcuti sarthu.

(Satanaq retira.)

RECOQUILLART

Egun houn jaun notaria
Nahi çuntudan mintçatu
Hountarçoun bouchi bat nahi niçun
Andere houni ordeignatu.

NOTARIA

Hounqui gin cirela
Çoure compagnarequi
Cerbutchaturen çutiet
Milla placerequi.

(Mahaigna eçar eta sar hauraq.)

Laur jakile leheniq
Behar ducie houna erakharry
Lekhu estrangerian beiniz
Eniz descartatu nahy.

(Arieder retira, Olliberos eta Rollan gin berhalla bi lagunequi, Recoquillart jouan Turkiara eta gin bignequi, arieder mintzo.)

ARIEDER

Jauna hoieq dutuçulla

Orai heben jakilliaq
Ez deusetan falta
Formalitatiaq.

NOTARIA

Jauna placer baduçu
Behar duçu mintçatu
Eya cer placer deroçun
Dama houni ordeignatu

RECOQUILLART

Jauna ordeignatcen dirot
Beste ororen gaignety
Jar dieçaçun egunian behin
Sudurra uzcuty.

Eta jan dacen egun oroz
Hamalaur libera chacurqui
Bai eta guero, edan
Etche guibeleco barga chiloty.

Jauna etcicia uduri
Aski ounesqui mintço nintçalla
Hola counten ezpacira çu ere
Astouaq jo aitcella.

Desiratcen dirot orano
Beste oroq eni beçalla
Sei hilabeteren khakeria eta
Guero zazpiren ecin bareria.

NOTARIA

Jaunaq arauz entçun ducie
Ordeignu hounen centcia
Edo behartcen bada
Jakile houn yçanen ciria.

OLLIBEROS

Ordeign bat aberatxiq dela

Coumprenitu diçugu
Eta ber hountarçunaq
Çouri ere desiratcen deitçugu.

ROLLAN

Hala hountarçun horiq
Hain abondant badira
Sargantaq ere behar diçu
Haietariq bere phartia.

NOTARIA

Jaunaq huillan citaye
Countratu hounen sinatcera
Guero jouan guitian
Fitez barazcatzera.

(Huillant eta sina.)

RECOQUILLART

Arieder abiloua
Cerbaiten prestatcera
Deliberatcen dignat jaun hoier
Colacione baten emaitera.

(Arieder jouan eta ekhar mestura, onighon gordin jaten ari.
Satanaq jalqui.)

SATAN

Chei handia eguiten ducie
Egun lekhu hountan
Bena deus hoberiq ez ekhartecoz Arieder
Sar çan sudurra khacan.

AZTAROT

Behady hounat Arieder
Hountarçouner khountu eguiçu
Egunco apairiaq berak
Osticobat emaiten dein.

JUPITER

Kita kita plaça haur
Boutiga gaistoua
Dantça bat eman deçagun
Libra palacioua.

(Açotiaz erretira eracy oro, nour bere gainty.)

SORTIBRAN

Oho Recoquillart noun iz
Ore amouriarequilan
Sarri behar diagu dantça bat eman
Oroq algarrequillan.

A Arieder Arieder
Pasione gaintitu handia
Azkenecoz causitu dun
Hire desein hartia.

Heben erran die elhia
Behar dialla erregistratu
Hori hala bada
Guq ere nahi aigu laguntu.

Adio erraiten deriat
Berriz utçul artio
Lagunequi houna utçultçin
Etcikuq berantures.

(Retira, soné. Satanaq dantça. Recoquillart eta Arieder jalqui eta passeya.)

JUPITER

Behady hounat Recoquillart
Oraico ene galthouary
Noun eguin eron khostia leheniq
Arieder horry.

Ykhousy çuntien nourbaiteq

Cien randerouco ostatian
Hebetiche clarqui erraitera
Barneiseco ourdantheguian.

AZTAROT

O beguirciq lekhu ederra
Haitatu çuniela
Bena nounbait apuspres
Cieq merechy beçalla.

Hountarçounaq arauz
Horri deitçoq ordeignatu
Hire hatiaren costuz bere jaunarequi
Behar diq ounxa libertitu.

SATAN

Alle pergut eskelliaq
Behar ducie gin goure etcherat
Edo bestella mementian
Heben eman bataílla bat.

RECOQUILLART

Ingoity eni mendecatcez
Etciria orano asse
Phausia emadacie edo
Leher eguin eçaçie.

JUPITER

Eztuq remesioneriq
Behar duq bataillatu
Bestella ene khacouaz har eta
Herresta nahi ait bolatu.

RECOQUILLART

Allo Arieder preparadi
Behar dignagu bataillatu
Fripon hoieq behar tignagu
Ahal batugu acaçatu.

(Batailla. Recoquillart blesa erditan bara.)

Alle tripon madaricatia
Hori diat hori colpia
Alleta debrieq eramaiten ezpahai
Ukhenen duq ordaria.

ARIEDER

Recoquillart hori duçulla
Goure fortuna gaistoua
Bena cihaurc ofenxatcen duçu
Bethi goure gincoua.

Etcira ebilten eliçan
Eta bai ostatietan
Çoure gousta duçu cartitan
Meça eta bezpera artetan.

Igante goiçan jouan eta
Segur gaiherdi artio
Bai eta orano hanitche aldiz
Astelehen goiz artio.

AZTAROT

Allo ezta kestionia
Guitian berriz batailla
Bestella eraman nahi çutiegu
Herresta goure ostatialla.

ARIEDER

Jauna çouri adresatcen nuçu
Celietaco Gincoua
Favori guitçaçu arren
Othoy çuq jaun justoua.

(Bataillа. Satanaq escapa.)

RECOQUILLART

Allo Arieder orai

Victoria badignagu
Eta orai animi bat
Retiratu behar dignagu.

(Retira, soné. Guide Bourgoigna jalqui eta mintço.)

BURGOIGNA

Gente hounaq etcitaiella
Memento bat deucia
Ceren goure sujeta
Orai doua finitcera.

Oren cart baten barnen
Dugu secur finituco
Esparantçarequi cien attentione hounez
Gutuciella laguntuco. (Retira.)

RECOQUILLART jalqui

Ari eder badakin
Estatu tristian niçalla
Eta orai ene sendotceco
Erremediriq eztella.

Hiq hala nahi badun
Nahi ait erregistratu
Bestella ene semiaq
Bastart behar din baratu.

Bena meragana ni
Ezpeiniz nahi presentatu
Grefiera behar dignagu
Leheniq elhestatu.

Hareq nahi badeizcu
Cridaq mintçatu
Bihar berian guero
Nahi ait erregistratu. (Grefiera jalqui.)

ARIEDER

Egun houn Jaun Grefiera

Çuq placer baduçu
Recoquillartequi ezcountcen niçalla
Cridaq behar deizcutçu mintçatu.

GREFIERA

Voila qui fet madama
Hori ounxa duçu
Erretira cite eta
Nahi tit publicatu.

ARIEDER

Goure icenaq ere
Jauna placer baduçu
Letera hountan barnen
Edirenen dutuçu.

(Grefiera passeya, bestiaq retira. Soné.)

GREFIERA

Ezcountceco promes elibat batut
Cier publicatceco
Eta by partidaq nour diren
Deitciet declaratuco.

Recoquillart Jupiterren lehen semia
Edireiten da gainti batety
Eta Arieder councubina pirotina
Aldiz beste ganitity.

Yhourc ere empechamenturiq
Balin badakie horietan gaignen
Revelacione eguin bece
Hoguei ta laur orenetan barnen. (Retira.)

(Jalqui Turcac oro.)

LARMIRANT

Gomendu eman neicien

Diella cerbait dembora
Ariederetan gainen
Sonein harturen çuniella.

Ene oustez orai
Thenoria hona da
Adret yçan citaye
Cien eguin biden guitera.

Guero jouan guitian
Soloju cerbaiten hartcera
Eni ja erraiten deiciet
Flacatu çait estomaca.

BESTE OROC BATETAN

Celiaz eta lurraz
Juratcen dugu Eguia
Houna aguertcen bada Arieder
Doluturen çayolla.

LARMIRANT

Guitian arren Jaunaq
Memento bat retira
Goure profetaren executatcera
Sarri utçuliren guira.

(Mahaigna eçar. Oro retira. Soné. Satanaq jalqui eta dantça Salbu Mera, Grefiera, Recoquillart eta Arieder oro by gaintietariq jalqui Mera, Grefiera eta Arieder, jalqui erdity. Hirouraq jar eta Arieder mintço.)

ARIEDER

Jauna Recoquillart
Eri handia duçu
Erregistratcera goure etchera
Othoy gin behar duçu.

MERA

Arieder holaco laniq

Niq eztignat eguinen
Phuntu batez ere leguety
Eman descartaturen.

Haur dun lekhu comuna
Ororen arbutchuco
Har beça hareq ere phena
Nahi bada houna giteco.

ARIEDER

Jauna arren banouaçu
Orai berian etchera
Eta cerbait ere maneraz
Ekharriren dit houna.

(Retira, Jollan eta oger ere bai, ekhar arteca eria. Hiroureq caideran eçar.)

GREFIERA

Çounbat ourthe tuçu
Oray erran behar duçu
Guero çoure lana
Fitez eguiniq duçu.

RECOQUILLART

Jauna arauz erregistriaq
Nounbait hor dutuçu
Eta haien verificatcia
Cien eguitecoua duçu.

GREFIERA

Jauna çoure erregistreriq
Ecin edireiten diçugu
Eta elliçacouetan ere
Segur nuçu batere eztuçu.

Batheiatceco cirela ere
Oro beldur gutuçu

Ceren çoure maneretariq
Guisa hanitch baduçu.

(Grefieraq cherqua erregistria.)

CHARION (*)

Othoitcen çutut jauna
Fitetz cherca eçaçu
Eri horri mendecatu nahiz
Huillan niz errabiatu.

GREFIERA

Jaunaq azquenecoz
Ediren dugu hounen adina
Eta erregistru haur edireiten da
Diela lauretan hoguei ourthe eguina.

Eta orai Jaunaq
Tranquila citaye
Memento baten buruco
Izkiribatciriq ducie.

MERA

Jaunaq haur duciela
Izkiribaturiq ea deya
Placer baducie oroq behatu
Emanen nahi deiciet lectura.

*(Scène 1.ª Jalqui Mera Sicambrius esqugnetic eta jar. Jalqui escuignetiq Aurelien, Gilla, Chilperiq, Marcelin eta Lupus, eta Aurelien mintço)*

AURELIEN

Jauna baguiniquiçue guq
Plainta bat eguin nahiriq
Herriaz oroz guirelariq
Aldiz beharturiq.

Plazer baduçu hartu

(*) Esta estrofa está tachada con una raya.

Behatceco attencionia
Nahi deiçugu arren
Declaratu causa.

MERA SICAMBRIUS

Mintça citçaye arren
Eya cer den causa
Justicia eguinen dut
Ene photerian bada.

GILLA

Bay jauna segurqui
Çoure photerian duçu
Eta estuçu behar
Arren arrafusatu.

CHILPERIQ

Niq ere ene aldetiq
Nahi çutut othoitu
Eta hoyen bersendimentian
Edireiten nuçu.

MARCELIN

Jauna ni arren
Hassico nuçu minçatcen
Recoquillartez eta Ariederrez
Dela questionne esplicatcen.

Badaquiçu hayen conduta
Dela laidogarria
Arren merechi luquiela
Hurrun accaçatcia.

LUPUS

Jauna bata bestiarequi egoiteco
Houraq noun dutuçu
Bena gente ounesten artetiq

Hurrun behar liquecie descampatu.

MERA

Jaunaq hortan gaignen
Ounxa arrazou ducie
Bena mement hountan
Deus ecin eguiten ahal çaye.

Oray unituriq beitira
Khambia ditaque
Berantchiago arren
Horrez, questioune date.

AURELIEN

Jauna hayen biciouaq
Sobera çaharturiq da
Thupa gaistotiq ardou houniq elquitia
Impossible da.

GILLA

Jauna bataren bicioua
Khambia dayte
Çahartuz gueroz deus errailleriq
Ihour ere espeituque.

CHILPERIQ

Gilla hory eguia
Handia erran duq
Bataren bicioua bortchaz
Khambiaturen duq.

Recoquillarten bicioua
Estuq secula khambiaturen
Thomban berarequi houna
Diq ehortciren.

MARCELIN

Jauna necesarri luqueçu

Lehen beno lehen
Arren placer baduçu
Duçu consentituren.

Içan ditian biaq
Hurrun accaçaturiq
Halaz beituquegu
Herria chahaturiq.

LUPUS

Jauna ene abisez ere
Determina ciniroçu
Eta lehen beno lehen
Nahi çuntuquet othoitu.

Amourecatiq goure herria
Içan dadin ounestatian
Bay eta ere halas
Bethi ereco phaussian.

MERA SICAMBRIUS

Jaunaq arren oray
Determinatcen dut
Recoquillart eta Arieder
Içan ditian hurrun accaçatu.

Caballotxez behar die
Berhala hurrunt eraci
Eta guero herecha
Lastoz erra eraci.

(Retira oro.)

*(Scène 2.ª Jalqui Recoquillart eta Arieder)*

RECOQUILLART

Arieder entçun dit berri bat
Berri hanix gaistobat
Herri hountariq goure accaçatceco

Hartu diela deliberacionne bat.

Cer eguinen dugu
Edo nourat jouanen guira
Othoi çuq ere emaçu
Çoure conseillia.

Emazteq dutucie, izpiritiaq
Hanix penetrant
Particularqui çouria duçu
Gaistoualaco constant.

Arren cerbait phensa eçaçu
Bourra milla diable
Hebentiq jouan
Behar badugu ere.

ARIEDER

Recoquillart lehenago niq
Cerbait niquçuna phensatu
Bena oray gogoua hanix
Citadaçut hostu.

Hounialaco ala gaistoualaco
Etçuqueçun ene paria
Particularqui ikhousten banien bacela
Plazer edo irabas pidia.

Hainitchetan hanix plazer
Hanix guiçouni dit causatu
Oray countre jarri cistadatçu
Çourequi niçalacoz escountu.

Alle diren beçalaco
Fripon esqueliaq
Hanitchetan bere plazeraq
Enequi igarou dutienaq.

Areta estitit arruinatu
Eni diharu emaitez
Eci ni countentatcen nunduçun

Pintou ardou çounbaitez.

RECOQUILLART

Arieder etcitadaçut cihaur ganiq
Conbersa hori hanix propi
Nahi bada banaquian
Çoure condutaren berri.

ARIEDER

Baçunuquia amens eni eguiteco
Cerbait arraprotchu
Noula cihaur beitcira
Ounxa gobernatu.

Ene ustez estiçugu
Çuq ez niq algar trompatu
Hartacos arroprochuriq algarri
Ecin emaiten diçugu.

Herritiq accaçaturiq içateco conbersa
Beste aldetiq miseria
Horreq behar diçu causatu
Çoure eta ene disgracia.

Eguia duçu algar ere
Estugula ounxa maithatu
Niq ja orai beno lehen
Sobera guiçoun dit eçagutu.

RECOQUILLART

Arieder çoure condutaz
Içan nunduçun instruitu
Bena oyhus cihaureq erraitia
Estrange citadaçu.

Arren bata bestia
Esteçagun desfama
Eta isseya guitian aldiz
Herrian egoitera.

(Retira biaq.)

*(Scène 3.ª Jalqui Aurelien, Gilla, Chilperiq, Marcelin, Lupus eta Sicambrius. Mera jar eta Aurelien mintço)*

AURELIEN

Jauna diela çounbait dembora
Recoquillartez eta Ariederez guntuçun minçatu
Eta houraq orano herrian
Edireiten dutuçu

Mundia oro duçu
Hayetçaz mintçatcen
Bay eta heben supportatcez
Oro estonnatcen.

GILLA

Hayec esticie merechi
Heben supportatcia
Hori duçu segurqui
Mundu ororen sendimentia.

Hayen ungurunetan ukheitia
Estuçu goure ouhouria
Hayen accaçatceco arren
Ikhousten dit necessitatia.

MERA

Hayen heben soffritcera
Estut cieq beno imbeyago
Bena ouste dut bertan beraq ere
Diela debeyatuco.

Gente ounestey ere badie
Cer eguina bicitceco
Eta hayec arren
Cer gainti die jauquiço.

Estienaz gaignian

Adisquideriq ez besteriq
Houraq jouanen dira
Ihessi hebentiq.

CHILPERIQ

Noula nahi duçu
Ihessi jouan ditian
Ihouren hayen mensiq
Estienaz gaignian.

Baster ororat duçu
Hoyen fama barreyaturiq
Bay eta mundu oro
Hayen condutaz instruituriq.

Heben uzten badira
Gogo hounez dira egonen
Hartacoz accaçatcia duçu
Necessari içanen.

MARCELIN

Hayen supportatcia
Estuçu gaiça aisita
Eta hayen bistan ikheitia
Noula possible da.

Arren arren eroq dugun
Suî eta foundatcia
Recoquillart eta Arieder
Herritiq descampa.

Hayen itchousquerien handiz
Odola çait mountatcen
Ene buria nihaureq ere
Ecin beitut comprenitcen.

LUPUS

Cieq jaunaq ouste ducie
Cerbait sujet badaquiciela

Baina segur içan çitie
Niq beçain bat estaquiciela.

Recoquillarteq bere demboran estu
Deusere borda hutxetan hartu
Ariedereq aldiz guiçouner
Plazer baiciq estu errendatu.

Recoquillarteq hil ondouan
Baduque abantailla bat handia
Adarrez adar aisa beita
Jouanen beste mundiala.

Celiala oundouan guero
Estaquit cer berri duquian
Hanco adardun houraq haren hayduru
Ouste dut prestiq diratian.

Ariedereq baduque han hatiq
Bere primantça
Bere bur hordari heben uzteco
Eguin baituque eguin ahala.

MERA SICAMBRIUS

Jaunaq dugun eguruqui
Çounbait egun orano
Aguian arte hountan
Beraq dira descampico.

Eta incas beraq
Ezpadira herritiq phartitcen
Lastoz herecha erra eraciriq
Dutugu bertan accaçaturen.

Eci holaco sujetiq
Ecin da supportatcen
Hartacoz ere ene errana
Bertan dugu executaturen. (Retira oro.)

*(Scène 4.ª Jalqui Arieder eta Recoquillart asquena mintzo)*

RECOQUILLART

Arieder phenarequi ikhousten dit
Heben estuquegula phaussiriq
Eta bortchatu içanen guirela
Jouaitera determinaturiq.

Estit urhaxiq eguiten ahal
Noun estudan mespretchu ençuten
Sarri hayec benaye
Besteriq eguitera erakharriren.

Oren gaistoua çuçun arauz
Ni houna gin ninçanian
Eta orano gaistouago
Çourequi eçagutce eguin nianian.

Nihauren countreco mesperetchiaq
Segurqui handi dituçu
Bena çoure countrecouaq
Hanitchez laxago dutuçu.

ARIEDER

Recoquillart ikhousten dit
Chahu poillotu ciradiela
Beharriaq nahi bada mens
Beste arrestacouaq badutuçula.

Çoure demboran içan cira
Cer nahi eguitera ekharria
Eta oray elhe çounbaitegatiq ducia
Galtcen coragia.

Gentiaq goure countre mintçago
Emaçu coragia handiago
Halaz lotxa eraciren dutugu
Balira ere debruquiz oro.

Allo arren Recoquillart emaçu
Bi unguru çoure bihotçari
Eta phenxa venjatcia

Herrico gente orori.

Ikhousten badie hayec
Gu lotxatu guirela
Aisa eguinen dicie
Gouri placer diena.

RECOQUILLART

Arieder çoure coragia
Houn dit edireiten
Bena amens çounbait elhe erraile berri
Çunuquia ediren ukhen.

Cerbait mesfidantcha oray
Deitadaçut har erasten
Nahibada eta çoure conduta
Net arraro esten.

Balimbada halacoriq
Estiçu hanix balia
Eni adar eguitera
Çouregana giten bada.

ARIEDER

Çuq eni eraiteco enegana giliaq
Estiela hanix balio
Ouste dit çuq beçaimbeste phuru
Mundu oroq dian balio.

Bena esquitian aharra
Eta bay içan adisquide
Aguian guero mundiaq ere
Cerbait errespeitu goure baduquie.

(Retira biaq. Jalqui Aurelien, Gilla, Chilperiq, Marcelin, Lupus eta Mera Sicambrius.)

MERA SICAMBRIUS

Jaunaq ouste dut oray

Recoquillart eta Arieder lotxatu diren
Eta herria bertan
Quitaturen dien.

AURELIEN

Jauna estuçu sobera sarri
Gaiça hory hala den
Debrietarat jouanen badira ere
Hebentiq campo phuru diren.

GILLA

Aurelien arrazou duq
Hola mintçatceco
Halacouetan debriaq badiq
Escunia franco.

CHILPERIQ

Recoquillart eta Ariederrez
Behar badu herriaq gabetu
Behar dugu hayequin
Solaz eta surlurio.

MARCELIN

Jaunac bozkarioz
Has neinte khantacen
Eta houraq phartituriq ikhousiz geroz
Eniz berhala ichilturen.

LUPUS

Hayen phartitceco egunian
Banquet bat dugu eguinen
Niq ya milla libera
Gogotiq dut emanen.

MERA SICAMBRIUS

Jaunac guitian arren jouan
Berhala ostatu batetara
Eta banquet handi bat

Berhala commanda. (Retira oro.)

*(Scène 6.ª Jalqui Recoquillart eta Arieder)*

RECOQUILLART

Arieder ençun dit herri hountan
Direla oro allagrantcian
Bay eta besta handi eguitera
Direla abiouan.

Çuq eta niq oustez
Herria dugun quitatcen
Eta harren heben eguiteco
Cer debru dugu phensaturen.

ARIEDER

Intercus canis ore vert
Latiz dira hitz hoyec oro
Uscaraz erran nahi dit
Horaren caca dela hayen ororentaco.

Eta hayen complotaren
Oray destroumpatceco
Badiçugu moyen bat
Hebentiq ezçotucatceco.

Eta hayer eracasteco
Hayetçaz guirela trufatuco
Guitian sar barna
Plazer baten hartceco.

RECOQUILLART

Alla izpiritu brillanta
Ene Arieder maitia
Oray ikhousten dit
Çoure merechimentia.

(Besarcatciarequi)

Graciousqui besarcabat
Arîeder deiçut galthatcen
Eta beste lanen eguitera
Oray gutuçu retiraturen.

---

NOTA FINAL: Algunas grafias evidentes como çoure en vez de coure, çonbait por conbait... han sido corregidas.